ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko urtarrilaren 18a > Astelehena > VI. urtea > 261. zenbakia > 1,10 euro
www.goiena.net TOKIKOM



"Miaketengatik erabaki dugu aurrez aurreko bisitetara gehiago ez sartzea"

**Mari Karmen Aiastui**
Jose Luis Elkororen emaztea > 08

**DEBAGOIENA**
**Cuatrovientos baserriko bideko mendixka erori egingo da** > 05

**KIROLA**
**Gehiago merezita ere UDA puntu batekin konformatu behar** > 22

**KULTURA**
**Raimundo Amador ikusteko Hiru aretoa lepo beteta** > 30

**KULTURA**
**Bertsoz bertso tabernaz taberna ibili ziren zapatuan Oñatin** > 31

**NEKAZARITZA** > TXAKOLINA

# Jatorri izena duen ibarreko txakolina edateko gertu dago

**GETARIAN** Atzo egin zuten Txakolin Egunean Javier Arregiren Kataide txakolinak bere lekua izan zuen

**HIRU EKOIZLE** Kataide markarekin batera Otxia eta Upain txakolinak ere Debagoienekoak dira

**ZORTZI HEKTAREA** Getariako Txakolina jatorri izena duten ibarreko ekoizleek 8,5 hektarea mahasti landatu dute > 04

**ARRASATE** > KOOPERATIBA

## Mondragon taldearen leloa, eredu

AEBtako enpresa batekin hitzarmena sinatu dute hemengo baloreak sustatzeko > 03



# Agur, Ekon

Agur isilak ahaztu egiten dira, zapatuan Durangoko Plateruenan Arrasateko taldeak eskaini zuen moduko agurrak berriz, ez. > 29

Ekon taldeko abeslari Juan Odola mikroa eskuan, ikusleak zirikatu eta aldi berean animatzen.

JOSETXO ARANTZABAL

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

**EZBEHARRA** > HAITI

## Maria Luisa Ugartek bizitakoa

Oñatikoak zuzentzen ditu Karitateko Mertzedariak eta Santo Domingotik egin du berba > 06

**JAIAK** > SANANTONABAT

## San Anton ermita jendez bete zen atzo

Bergarako San Anton auzoan Sanantonabat jaiak ospatu dituzte, eta urtero moduan, domekan santuaren izena duen baseliza txiki geratu zen meza entzuteko; herritar batzuek kanpotik jarraitu behar izan zuten meza. > 12

**JENDARTEA** > LAPURRETAK

## Arrasateko 35 garajetan sartu dira

San Andres auzoko Kurtzetxiki plazako parkingean sartu ziren lapurrak egubakoitzean> 06



Umeentzako liburuak. Nahi?

Zoaz 7. orrialdera

# Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

## Ongi etorri Goiena Klubera

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Goiena Kluba aurkezten dizu.
Orain arte **Asteleheneko Goienkaria**-ren harpidedun izan zaretenok Goiena Klubeko bazkide izango zarete aurrerantzean.

## Goiena Klubeko txartela

Bazkide-txartel personalizatua jasoko duzu etxean. Bazkide-txartelarekin harpidetzak dakarren abantaila eta onura esklusiboetan parte-hartzeko aukera izango duzu. Askotariko ekitaldi eta zerbitzuetan bazkide-txartela erakutsi, onurak aprobetxatu, eta gozatzera!




## Goiena Klubeko bazkideen abantailak

Asko dira Goiena Klubak eskaintzen dituen abantailak.
- **Goienkaria** astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak...

**eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat**

## Deskontu bereziak

Goiena Klubeko txartela aurkeztu, eta ondorengo enpresetan deskontu eta abantailak izango dituzu.

### BARCELÓ BIDAIAK
**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

### LILURA EDERTZE INSTITUTUA
**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

### NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA
**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

### IKER SUKALDEAK
**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

### LARRAÑAGA AUTOESKOLA
**BERGARA**
- **-%15** matrikula ordaintzean.

### ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

### MONDRAGON LINGUA
**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan. Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

### AUTOBERRI
**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa **20 euro**.
- Erosketaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

### CLINICA DENTAL BERGARA
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

### ZIENTZIEN KUTXAGUNEA
**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu

### AQUARIUM
**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu

### TXURI-URDIN IZOTZ JAUREGIA
**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu**

2010 urteko kuota: **45 €**
Telefonoa: **943 25 05 05**
Posta-e: ***kluba@goiena.com***

**EKONOMIA** > KOOPERATIBISMOA

# Mondragon Taldearen 'Humanity at work' leloa AEBetara doa

**HITZARMENA** Korporazioak eta United Steelworkers sindikatuak lankidetza hitzarmena sinatu dute, balore kooperatiboak sustatzeko

**ENPRESA EGOKIAREN BILA** Programa pilotua martxan jartzeko enpresa egokiaren bila dabiltza orain; urtea amaitu baino lehen topatu nahi dute

**GARRANTZITSUA** Taldeak hitzarmen horren garrantzia azpimarratu du, bere ereduaren zati bat beste herrialde eta enpresetara eroan daitekeelako




*Humanity at work* leloari helduta, Mondragon korporazioa eredu kooperatiboari balio ematen saiatuko da AEBetan. ARTXIBOA

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Mondragon Taldeak lankidetza hitzarmen garrantzitsua du AEBetako United Steelworkers (USW) sindikatuarekin. Korporazioko Amerikako saileko zuzendari Fernando Fernandez de Landak bi erakundeek sinatutako akordio horrekin zehazki zer bilatzen den jakinarazi digu: "Hitzarmen horren helburua ez da AEBetan enpresak sortzea, baizik eta sistema hibridoa bultzatzea enpresak kudeatzerakoan; hain justu ere, orain arteko sistema tradizionaleko printzipioak kooperatibetako baloreekin uztartzea".

Mondragon Taldeak uste du, bere esperientzian oinarrituta, lagundu egin dezakeela eredu irekiago, parte hartzaileago, justuago eta solidarioagoa bati balioa ematen, bere balio kooperatiboekin bat eginda, *Humanity at work* leloari helduta. Besteak beste, langileak kudeaketara gertura daitezela, enpresaren egoeraren gaineko informazio gehiago jaso dezatela eta hainbat erabaki hartzerakoan parte har dezatela bilatuko da horren bidez.

**SINDIKATU AURRERAKOIA**

USW sindikatua AEBetako industri sindikatu handiena da, eta askotariko jarduera industrialetako 1,2 milioi kide inguru ordezkatzen ditu. Sindikaturik "aurrerakoiena" da eta Barack Obama presidentearengandik hurbil dago.

**PROGRAMA PILOTUA**

Hitzarmena urriaren amaiera aldean sinatu zuten eta ordutik hona, martxan jarri beharreko baliabideak eta ekimenak aztertzen ibili dira. Aldi berean, programa pilotua topatu nahian dabiltza. Fernandez de Landaren arabera, "AEBetan tamaina eta egoera sozial egokia duen enpresa bilatzen ari gara orain, sistema abian jarri ahal izateko. Hau da, enpresa kudeatzerako orduan kooperatibismoaren gaineko filosofia sortzeko aholkuak eta laguntza ematean datza gure zeregina".

Gaineratu du sindikatua bera arduratuko dela enpresa hori topatzeaz: "Oraindik ez dakigu enpresa hori ze arlokoa izango den; industria, nekazaritza edo finantzariokoa izan daiteke. Sindikatuak egon daitezkeen aukerak topatuko ditu. Mondragon Taldeak bitartean, programa abian jarri ahal izateko lanean dihardu. Jarraian, elkarrekin denondako egokia dena aukeratuko dugu".

**EPE ZEHATZIK GABE**

Fernandez de Landak aipatu digu ez dakitela zenbat denbora beharko duten esandako programa egiteko. Dena dela, gaineratu digu asmoa dela urtea amaitu baino lehen eskaintza hori finkatua izatea. Gaineratu du hori aldatu ahal izango dela aukeratuko den enpresaren arabera.

Herrialde horretan kooperatibismoak duen presentziaz ere berba egin du: "AEBetan askotariko espektroetako enpresak topa daitezke. Batetik, solidaritate maila oso altua dutenak aurki daitezke; baina, bestetik ekonomia ikuspegitik, *agresiboenak* direnak ere topa daitezke". Horren harira, gaineratu du kooperatiben gaineko baloreak nahiko errotuta amerikarren artean. Gaur egun, 29.0000 kooperatiba daude eta horiek 80 milioi pertsona enplegatzen dituzte.

Mondragon Taldearendako hitzarmen horrek duen garrantziaz ere hitz egin du: "Oso gai interesantea da. Gai horretaz hitz egin genuenean argi genuena zen gure esperientzia ez dela transplantatu ahal den gai bat. Interesanteena da guk bultzatzen ditugun baloreak zati batean beste erakunde, herrialde edo enpresa batera eraman daitezkeela".

ESANAK

**"Orain arte sistema tradizionaleko printzipioak kooperatibetako baloreekin uztartu nahi ditugu"**

**"Enpresen kudeaketan Kooperatibismoaren gaineko filosofia sortzeko laguntza ematean datza gure zeregina"**

**Fernando Fernandez de Landa** > Mondragon Taldea

MONDRAGON TALDEA AEB-ETAN

## Korporazioak 500 langile inguru ditu egun

Mondragon Taldeko 15 kooperatibatik gora daude instalatuta gaur egun AEBetan; guzti horiek guztiak bulego komertzialak dira; hain justu ere, zerbitzua eman eta produktuak saltzen dutenak. Horretaz gain, ekoizpen planta bi ere baditu, Orbea eta Dikar enpresena; eta baita hiru polo handi ere: Chicagon, Atlantan eta New Yorkeko ingurunean daudenak. Txikiagoak diren beste eremu ditu, Texas eta Kalifornian, hain zuzen. Korporazioko Amerikako saileko zuzendari Fernando Fernandez de Landak aipatu du, guztira, 500 langile inguruk lan egiten dutela taldeak herrialde osotik sakabanatuta dituen gune guzti horietan.




Javier Arregi aurtengo txakolin botila batekin, Kataide baserrian duen biltegian, zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL

**NEKAZARITZA** > TXAKOLINA

# Ibarreko txakolin ekoizleak, gustura aurtengo emaitzarekin

Atzo Getarian egindako Txakolinaren Egunean, bere tokia izan zuen Kataide txakolinak

Eguraldia lagun izan dute ekoizleek, eta aurtengoa txakolin ona omen da

**TXOMIN MADINA** > BERGARA

Urtero legez eta San Anton eguna aprobetxatuz, atzo egin zuten Getarian Txakolin Eguna. Bertara joan zirenek Getariako Txakolina jatorri izena duten ardoen aurtengo uzta dastatzeko aukera izan zuten.

22 izan ziren denera aurkeztu ziren markak eta aurten, lehenengo aldiz, ekoizle debagoiendar baten txakolina dastatzeko aukera egon zen, Kataide txakolina egiten duten Hegi Haundi baserrikoak hain zuzen ere. Zortzi kaxa eraman zituzten arrasatearrek.

**15.000 BOTILA**

Hegi Haundiko Javier Arregik adierazi duenez, bi hektarea mahasti landatu dituzte, eta bertatik 10.000 litro txakolin atera dute, 15.000 botila inguru.

Kalitateaz galdetuta, Arregiren ustez txakolinaren kolorea, zaporea eta usaina dira kontutan hartu beharreko faktoreak, eta gustuak gustu, iaz eta duela bi urte ez bezala, txakolinarendako urte ona izan dela gaineratu du. Ekoizlearen zainketez gain, eguraldiak uztaren kalitatean zeresan handia duela nabarmendu du Arregik, eta zentzu horretan, aurten zortea izan omen dute.

1991an ekoiztu zuten lehen aldiz txakolina Hegi Haundi baserrian. Javier Arregiren ustetan, garai baten ardoaren mesedetan txakolina baztertuta egon den arren, gero eta gehiago edaten omen da.

Atzo Getarian egon arren, ohitura duten legez, domekan Angiozarko Partaitti auzoko jaietara ere eramango dute Kataide txakolina jendeak proba dezan.

**OTXIA ETA UPAIN**

Arrasateko Otxia eta Oñatiko Upain txakolinek ere Getariako Txakolina jatorri izena dute, baina oraindik ere kaleratzeke dute aurtengo uzta.

Artazubiaga baserrian egiten dute Otxia txakolina eta bertako Felix Etxagibelek azaldu duenez, ez dakite zehazki noiz aterako dituzten aurtengo txakolina duten botilak. Izan ere, mahatsa eurena den arren, txakolina bihurtzeko prozesu guztia Getaria inguruan egingo diete. Urriaren 12ko asteburuan jaso zuten uzta. Etxagibelen ustez, uzta ona izango da, landareek ez baitzuten gaixotasunik izan, eta jasotzeko unea ere aproposa izan zelako.

Upain baserrian ateratzen duten izen bereko txakolina eskuratzeko martxoa ingurura arte itxaron beharko da, botilak oraindik etiketatzeke daude-eta. Mahastien arduradun Iñaki Gerekaren esanetan, 45.000 litro txakolin lortu dituzte gutxi gorabehera. Oñati aldean ere gustura daude lortutako zukuarekin: eguraldia lagun izan dutela esan du Gerekak, eta txakolinak graduazio egokia duela.

### Gure ekoizleak

**Kataide**
> Hegi Haundi baserria (Arrasate).
> Bi hektarea.
> 10.000 litro.

**Upain**
> Upain baserria (Oñati).
> 5,5 hektarea.
> 45.000 litro inguru.

**Otxia**
> Artazubiaga baserria (Arrasate).
> Hektarea bat.
> Mahatsa oraindik prozesatzeke.

DATUA

**8,5**

**HEKTAREA**

Getariako Txakolina jatorri izena duten Debagoieneko ekoizleek landatutako mahastiak. Datorren urterako beste hektarea bat eta erdi landatzeko asmoa dutela adierazi dute.

SAGARDOA

## Asteon hasiko da denboraldia gure sagardotegietan

Gipuzkoan sagardo denboraldia joan den astean hasi bazen ere, Arrasateko Txondorra sagardotegian astearte honetan hasiko dute. Gose taldea izango da gonbidatua eta bertsolari eta trikitilariak ere egongo dira 19:00etan hasiko den ekitaldian. Saizar etxeko bi kupel izango dituzten aurten Txondorran.

Arabako sagardogileek bestalde, egubakoitzean hasiko dute denboraldia Trebiñon. Aramaioko Iturrieta sagardotegikoek baina, jai txiki bat antolatu dute hurrengo egunerako. 19:30ean hasiko da jaia, eta Gasteizko Trikitixa Eskolakoak egongo dira bertan. Iturrietako arduradunen esanetan, aurtengo uzta kopuru aldetik nahiko pobrea izan da: 2.000 kilo pasatxo jaso dituzte, eta Gipuzkoatik sagar gehiago ekarri behar izan dituzte. sagardoa bera baina, oso ona omen da: ez iaz bezain gozoa, baina edateko erreza.

ELURTEA

## Suhiltzaileek 30 irteera egin zituzten Debagoienean

Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datuen arabera, elurteak eragindako arazoei aurre egiteko bere menpe dauden suhiltzaileek 120 irteera egin zituzten urtarrilaren 8, 9, 10 eta 11n.

Zortzi dira denera Aldundiaren ardurapean dauden suhiltzaile etxeak, eta horien artean, Zubillagakoek izan zuten lan gehien, denera 30 irteera egin zituzten-eta.Ibarrean egindako lanen artean, anbulantzia bati Antzuolaraino lagundu izana aipatu dute foru arduradunek.

Aldundiaren esanetan, egun horietan ehun bat suhiltzaile eta palaz eta gatzontziz hornitutako lur orotako 18 ibilgailu ibili ziren lanean.

> EKONOMIA

## Arrasateko Lasan 11 behargin bota gura dituztela salatu dute

ELA sindikatutik salatu dutenez, Arrasateko Lineas Automaticasen, Lasa bezala ezaguna den lantegian, 11 langile kaleratu gura dituzte Lan Erregulazio Txostenaren bidez.

Sindikatuaren arabera, zuzendaritza neurri gogorrak ari da hartzen langileen iritzia aintzat hartu gabe. ELAtik diotenez, opor garaian hartzekodunen konkurtsoa aurkeztu zuten, langileei ia hiru hilabeteko soldata zor diete eta kaleratzeak telefonoz ari dira jakinarazten. Gaineratu dute guztia langileen erdia kalean uzteko plana dela. Enpresako arduradunekin harremanetan jartzen saiatu arren ezin izan dugu eurekin berba egiterik lortu.

> AZPIEGITURAK

## AP-1 autobidearen erabilera sustatu gura du Aldundiak

Eneko Goia, Bide Azpiegituretako foru diputatuak adierazi duenez Debagoiena zeharkatzen duen AP-1 autobidea ez da behar beste erabiltzen eta bitartean, N-1 autobidea saturatuta dago. Desoreka horri konponbidea bilatu guran, Etxegaraten ordainlekua jartzea gura du Goiak.

Bere esanetan, N-1 erabiltzen duten paseko kamioiek arazoak besterik ez dituzte eragiten, eta arazo horiei irtenbidea emateko zirkulazioa Eibar eta Gasteiz arteko autobidera desbideratzea da asmoa.

Goiak berretsi du era berean, Olandixoko saihesbidea udaran irekiko dutela.

**AHT** > LUR MUGIMENDUA

# Cuatrovientos baserriko bidea dagoen mendi zatia behera etorriko da

Aramaioko alkateak Goienari esan dio mendi mugimenduak kontrolatzen dihardutela, baina neurriak hartzea ezinbestekoa dela


Cuatrovientos baserri ondoko mendia mugitu egin da. JULEN IRIONDO

J.IRIONDO/M.BIKUÑA > ARAMAIO

Baieztapen gordina da, baina hasieran susmoa zena baieztatzen ari dira azterketa geologikoak. Cuatrovientos baserrirako bidea dagoen mendi zatia behera eroriko da. Dena den, Aramaioko alkate Asier Agirrek lasaitasunerako mezua eman gura izan du, mendiaren mugimendua kontrolatzen ari direlako, eta ez delako une batetik bestera eroriko. Baina, gertatzen denerako hainbat eskakizun egin dizkie alkateak AHTren lanetako eta trenbide azpiegituretako arduradunei.

Horren harira, Aramaioko Udaleko ordezkariak, Arabako diputazioko errepideetako arduradunak, AHTren lanetako buruak eta Ertzaintza harremanetan dira abendutik. Aldi berean azterketa geologikoei ere ekin diete, mendiaren materialak duen egonkortasuna eta izan dezakeen bilakaera aztertzeko.

**KOBATE BIDE-ZUBIA**

Euskal Trenbide Sare Berriak Arrasate-Elorrio tartean izango duen Kobateko bide-zubia eraikitzen hasi zen abenduaren 15ean. Estruktura horrek Karraskaingo eta Udalaitzeko tunelak lotuko ditu, eta 94 metro luze eta 14 metroko zabalera izango ditu. Horren gainean, abiadura handiko bi trenbide jarriko dituzte.

Gainetik igaroko du izen bereko ibaiak zeharkatzen duen harana. Tarte horretan, Karraskaingo tunelarekin bat egiten duen Gabaundiko bidezubian, Donostiarantz doan bidea bereizten da.

**INGURUMENA BABESTEKO NEURRIA**

Arrasate-Elorrio tarteak 4,4 kilometro ditu. Horietatik 3,6 lurpetik igaroko dira, Karraskaingo eta Udalaitzeko tuneletan zehar. Horrez gain, Kobateko eta Gabaundiko bide-zubiak egingo dituzte.

Estrukturak ingurumenean izango duen eragina murrizteko, bide-zubia eraikitzeko lanak amaitzen dituztenean, lursail horiek garbitzeaz batera, berriz landatzeko eta ingurumena berreskuratzeko prestatuko dituzte. Gainera, 39.852 zuhaitz autoktono landatuko dituzte bidezubiaren inguruan.

**MANIFESTAZIOA**

AHT Gelditu! Elkarlanak zapatuan, hilaren 23an, Hendaiatik Irunera egingo den AHTren aurkako manifestaziora joateko deialdia egin du. Parte-hartzaileak 16:00etan bilduko dira Hendaiako tren geltokian.

etxeko leihotik



**Ubane Madera** > arrasate@goiena.com

## Deskarga-orririk ez, kanonik ere ez

Hasi dugun urte honetan gura du Espainiako gobernuak musika, pelikulak eta halakoak deskargatzeko Interneten dauden guneak itxi. Badakizue, pirateoaren kontrako neurria omen. Eta jakina, SGAEren, aldekoa.

Pirateoaren, web orriak ixtearen eta halakoen gaineko hausnarketa egin barik, baina, gaurko honetan beste kontu bat nahiko nuke landu: kanona.

Pirateoa arrazoi (edo aitzaki) hartuta, 2007an hasi ziren aplikatzen kanon berriak: CD, DVD, MP3, MP4, poltsiko-ko telefono, PDA aparailu, audio grabagailu, bideo grabagailu eta bestelakoen berezko prezioari gehitzen zaion kuota da kanona. Eta esandako aparailuen prezioak igo zituzten, gainera, kontuan hartu barik erosleak zein erabilera ematen dien. Hau da, norberak ateratako argazkiak gordetzeko CDarengatik ere kanona ordaintzen dugu, pirateoa egin edo ez.

**"Kanona aplikatzen diete CD, DVD, MP3, MP4, telefono eta bestelakoei"**

Bada orain kanon horiek guztiak kendu egin beharko lituzketelakoan nago.

Berez, pirateoari aurre egiteko lege (eta jakina, zigor) berria aplikatzen hasiz gero, bidezkoena da orain arte gauza bera egiteko erabili duten bidea (herritar guztiok berdin-berdin ordaintzen genuena) ezabatzea.

Ni horren zain egongo naiz, jakina. Nahiz eta egingo dutenaren gaineko esperantza larregi ez izan.

**> Prezioa jaitsi**

**Pirateo, top manta eta bestelakoei aurre egiteko neurri eraginkorra izango litzateke musika diskoen eta liburuen prezioak jaitsiko balituzkete; gaur egun musika edo liburu bat eroste pribilegiatuen esku dago**

**> Zenbat autoreari?**

**Gustatuko litzaidake jakin liburu eta diskoengatik ordaintzen dugunetik zenbat ematen dieten egileei; berez, hori da-eta SGAEren funtsa: jabetza intelektuala babestea; baina nago halakoetan banatzaileak direla irabazle**

**TURISMOA** > FITUR

# Etxe Aundik ICTEk emandako saria jasoko du Fitur azoka dela-eta antolatutako ekitaldian

Eguaztenean zabalduko ditu ateak turismoaren azokak Madrilen eta bertan izango dira Debagoieneko ordezkariak

MIRARI ALTUBE > ARRASATE

Hilaren 20an hasi eta domekara bitartean egongo da zabalik turismoari eskainitako Fitur azoka. Krisiari aurre eginez iazko erakustoki kopuru bera egongo dela iragarri dute, hau da, 170 herrialdetako 11.000 enpresen ordezkaritzak. Tartean Eusko Jaurlaritzarena egongo da eta bertan Ernesto Murgiondo, Oñatiko turismo zinegotzia eta Ana Heriz Mankomunitateko turismo teknikaria izango dira Debagoienaren berri ematen: Arrikrutzeko kobak, Arantzazu…

**EKITALDIA EGUAZTENEAN**

Azoka aprobetxatuta ICTE erakundeak –Turismo Kalitatearen Espainiako Erakundea– sariak banatuko dizkie turismoaren alorrean lan egin eta iaz Q kalitatea eskuratutako hainbati. Hain zuzen Oñatiko Etxe Aundi jatetxeak jasoko du sari hori eguaztenean egingo duten ekitaldian.

ESANAK

**"Etxe Aundi jatetxeak eskuratutako sarien atzean, tartean kalitatearen Q saria, lan handia dago "**

**E. Murgiondo** > Oñatiko zinegotzia

**ZERBITZUA** > OÑATI-ARANTZAZU AUTOBUSA

# Arantzazuko autobusa 9.000 lagunek erabili zuten ihaz

Azken hiru urteotan gora egin du autobusaren erabiltzaile kopuruak

M.A. > OÑATI

Oñati eta Arantzazu artean dagoen autobus zerbitzuaren datuak aztertu ditu Oñatiko Udalak eta azken hiru urteotan erabiltzaile kopuruak gora egin duela ikusi du, nabarmen gainera. Hori horrela, oso pozik dago herritarren erantzunarekin.

2007ko apirilean jarri zuten abian zerbitzua eta orduan 7.592 herritarrek erabili zuten; 2008an, 8.707k; eta iaz, 9.194k. Hortaz, %6 hazi da 2008tik 2009ra erabilera. Gainera, jasotako datuetan argi ikusi dute udako hilabeteetan –uztaila, abuztua eta iraila– erabili dutela gehien autobusa.

**AUTOBUSAK ORDURO**

Aurtengo zerbitzuaren berri ere eman du Udalak. Orduro aterako da autobusa Oñatitik 08:30ak eta 18:30ak bitartean, eta bueltarako ere orduro egongo da 09:00ak eta 19:00ak artean.

**EZBEHARRA** > HAITI

# "Jimaniko ospitalean ez dago oherik eta zaurituak lurrean daude, koltxoi txikien gainean"

Maria Luisa Ugarte oñatiarrak zuzentzen dituen Karitateko Mertzedariak Haiti eta Dominikar Errepublikako mugara doaz laguntzera

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

"Haitirekin muga egiten duen Dominikar Errepublikako Jimani herrira zauritu asko ekarri dituzte; hango ospitaleak har ditzakeenak baino askoz gehiago". Maria Luisa Ugarte oñatiarraren hitzak dira. Dominikar Errepublikako Santo Domingo Probintziako Karitateko Mertzedarien arduraduna da bera; Dominikar Errepublika, Haiti, Puerto Rico eta Panamako arduraduna, hain zuzen ere.

Dominikar Errepublikako hiriburuan bizi bada ere, egunotan Jimani herrian izan da oñatiarra eta baita Karitateko Mertzedarien beste hainbat moja, hain beharrezkoa den laguntza eskaintzen: "Janaria, ura eta botikaz betetako kamionetarekin goaz hara. Orain beharrezkoa dena batzen gabiltza eta martitzenean edo eguaztenean beste kamioneta bat irtengo da. Bestalde, Jimanin gauden bitartean, iristen diren zaurituak ere sendatzen ditugu".

**150 ZAURITU JIMANIN**

Karitateko Mertzedari Maria Estela Angelesek bi egun eman ditu Jimanin; zapatuan itzuli zen. Han ikusi duenarekin "hunkituta eta indargabe" dago oraindik. Angelesen esanetan, "Jimaniko egoera oso kaotikoa da Haititik iristen ari den zaurituen kopurua dela-eta. Hango ospitaleak 40 lagunendako tokia du eta orain, 150 zauritu eta operazio-gela bakarra daude. Dominikar Errepublikako herritarrik ez dago, guztiak haitiarrak dira. Ez dago oherik eta hortaz, zaurituak lurrean daude, izara gabeko koltxoi txikien gainean. Gainera, horrenbeste zauritu iristen direnez, ezin diegu arreta duina eskaini".

Ugartek gaineratu du zauriak sendatzea bezain garrantzitsua dela zaurituek diotena entzutea eta animatzea. Dena dela, onartu du behin baino gehiagotan egoera ulertzeko "indar barik" geratu dela eta negarrez hasi dela.

**HAITIKO HIRU MOJAK, ONDO**

Bestalde, Ugartek azaldu digu Karitateko Mertzedariek hiru moja dituztela Haitin: "Hirurak ondo daude. Lehenengo egunean eurekin hitz egitea lortu genuen eta beldurtuta bazeuden ere, ondo daudela jakinarazi ziguten. Bi Port-au-Prince herrian daude; bata medikua da eta bestea erizaina; hortaz, ahal duten guztian laguntzen ibiliko dira han; hirugarrena Yazmelan dago. Azken ingurune horretan ere kalte asko eragin ditu lurrikarak eta ondorioz, ez dugu eurekin komunikatzerik".

Azkenik, Ugartek aipatu digu eurek ere martitzeneko lurrikara sentitu zutela Dominikar Errepublikako hiriburu Santo Domingon. Oñatiarraren arabera, "zorabio baten antzera sentitu genuen, besterik ez. Kalterik ez zuen eragin horrek".

**MADDI GARMENDIA**

Bestalde, Haitin bizi den Maddi Garmendia aretxabaletarrak dagoeneko telefono bidez hitz egin ahal izan du Mikel semearekin. Marga Garmendia ahizparen esanetan, "eguazten iluntzean hitz egin zuten. Ez zaie ezer pasatu eta etxeak ez du kalterik jasan".



Jimaniko ospitalean lurrean daude zaurituak. MARIA ESTELA ANGELES



Zaurituak Dominikar Errepublikara eroaten dituzte; tartean, umeak. M.E.A.

**JENDARTEA**

## Lapurretak izan dira Arrasateko garajeetan

San Andres auzoko Kurtzetxiki plazako parkingean sartu dira lapurrak

**M.B.** > ARRASATE

Lapurretak egubakoitz goizaldean gertatu ziren Arrasateko San Andres auzoko garajeetan; hain justu ere, Kurtzetxiki plaza azpian dagoen parkingean. Lapurrak parkingeko bi pisutan dauden 35 garajetara sartu ziren.

**BALIO GUTXIKO OBJEKTUAK**

Poliziak jakinarazi duenez, garaje bakoitzeko ateak indarrez zabaldu ostean, lapurrek autoak miatu zituzten. Dena dela, badirudi ez zutela balio handiko objekturik ostu. Ez da lehenengo aldia parking horretan lapurtzen dutela.

> ELKARTASUNA

**Bergarako Sahararen aldeko kanpaina, egubakoitzera arte**

Azken urteotako ohiturari jarraituz, ibarreko taldeek Saharako errefuxiatuendako elikagaiak biltzen ari dira, *Sahararen aldeko euskal karabana. Piztu itxaropena* lelopean. Bergarako Busisher elkarteak egubakoitzera arte egingo du bilketa udalerriko zein Antzuola, Elgeta, Angiozar eta Soraluze ikastetxeetan. Leintz bailarako Iesbaa eta Oñatiko Nubi elkarteek, berriz, kanpainarekin amaitu dute honezgero.

**LANAK** > ISTRIPUA

# Haizeak botatako garabiak ez zuen inor zauritu

Oñatiko Kasablanka auzoan egiten diharduten etxe tasatuetako bat eta Antzokua baserria kaltetu zituen

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Eguazten arratsaldean egundoko sustoa hartu zuten Auntzokua baserriko bizilagunek. Euren ondoan egiten diharduten etxe tasatuetako garabia etxe gainera erori zitzaien. "Ondo gaude, baina sustoa itzela izan da", esan zigun Antzokua baserriko Maribik. Bestalde, etxe tasatuek ere kalteak izan dituzte, garabiaren kontrapisuak etxearen kontra egin zuen-eta. ITALDE Eraikuntza enpresako arduradunek etxeko kalteak ikusi ondoren Goienari adierazi diote ustekabeak atzerapena ekarriko duela etxeak bukatzerako orduan.

Etxeen gainera erori zen garabia egubakoitzean kendu zuten.

**KALTEAK BASERRIAN**

Kasablankan eraikitzen diharduten babes ofizialeko eta etxe tasatuen atzealdean zegoen garabia haize boladengatik erori zen. Oinarria etxe tasatuen teilatuen kontra jarri zen, eta garabi-besoak 360º buelta emanda, Auntzokua baserriko teilatuaren kontra erori zen. Kontrapisua aldiz, kanpotik barrura, etxe tasatuetan sartu zen, baina inor ez zuen zauritu. Auntzokua baserriko kalteak ere nabariak dira. Baserriak bi etxebizitza ditu, eta kalte guztia goikoak izan zuen. Garabi-besoak teilatuan egundoko zuloa egin zuen, eta egongelako sabaia lurrera bota zuen. Gainera, egun osoan zehar egin zuen euriteak etxe barrua kaltetu zuen. Etxeko guztiak ondo daude.



Garabiak etxe tasatuen fatxadaren kontra jo zuen. MIREIA BIKUÑA

auzorik auzo

**AOZARATZA** > Aretxabaletan eta baita ibarrean ere auzo ezaguna da Aozaratza. Izan ere, bertan dago Urkuluko urtegia. Mendi ibilaldi bikainak eskaintzen dituen auzoa da; horrez gainera, Otalora dorretxea dago han.

**Josu Mendieta** > Aozaratzako auzo-alkatea

# "Autoa Otalako aparkalekuan utzi eta Urkulura oinez etortzeko egin da bidegorria"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABALETA

**Elurtearen ondoren zuri eta izoztuta aurkitu dugu Aozaratza auzoa. "Haize lekua da hau", dio Mendieta auzo-alkateak, dabilen haizea dela-eta. Udalak egokitu berri duen bidegorriaz berba egin du Mendietak, eta herritarrak animatu gura ditu autoa utzi eta bidegorria erabiltzera.**


Josu Mendieta, San Juan eliza atzean duela. A.E.

**Zein da gaur egun auzoko egoera biztanleei dagokienez?**

Baserri gehiago ezin dira egin auzoan; hortaz, baserri kopurua mantendu egin da: 24. Biztanleei dagokienez, ez da gorabeherarik egoten: 55 lagun bizi gara.

**Baserriak egin edo baserrietan etxebizitza gehiagorik egiteko aukerarik ez dago. Zer diozue auzotarrek horren aurrean?**

Udalak duen plan estrategikoaren barruan sartuta dago hori eta ezin dira etxe gehiago egin. Bestalde, ez dago aukerarik baserri berean etxebizitza gehiago ateratzeko. Egin, egin daitezke, baina ezin dira eskriturak egin.

Nik ondo ikusten dut baserri gehiagorik ez egiteko aukera, baina beste legeak arazoak sortu ditu. Hala ere, uste dut arazoa konpontzeko bidean direla.

**Zirkulazio handia duen auzoa da Aozaratza. Horrek kezkatu egiten zaituzte?**

Zirkulazioa da hemengo kezka nagusia. Urkulu bertan dago eta, ondorioz, mugimendu handia dago; batez ere, udaberri eta udazken aldera.

Arazo hori konpontzeko egin dute Otalatik datorren bidegorri zatia.

**Asmoa da Otalako aparkalekua aprobetxatzea.**

Bai, horretarako egin dute. Asmoa da jendeak autoa Otalako aparkalekuan uztea eta bidegorria erabiliz oinez etortzea Urkulura.

Jende asko dabilen garaian autoak gaizki aparkatuta egoten dira; azkenaldian, asko hobetu da, batez ere komunak dauden tokian egin duten aparkalekuarekin. Baina lehen, auto guztiak Etxaluzetik hasita bide ertzean aparkatuta egoten ziren.

**Horrelako eguraldiarekin arazoak izaten dituzue?**

Bai, baina arazo normalak izaten dira. Udalak bere zerbitzua ematen du eta iristen da iristen denean. Ez daukagu kexarik horren inguruan.

**Urtegi ingurua ere txukuntzen zabiltzate.**

Bai, azkenaldian egin dituzte lanak urtegi inguruan. Lehen sastrakak zirenak garbitu eta leku horiek egokitu egin dituzte berdegune moduan oinezkoentzat.

**Ibilaldiak egiteko aukera zabala eskaintzen du auzoak.**

Urkuluri buelta emateaz gain, Degurixara, Ugastegira... joateko aukera dago Urbaltzen gora. Kurtzebarrira ere igo daiteke auzotik bertatik. Dauden leku zoragarriak egonda, jende gutxik ezagutzen ditu Urkulun gora dauden bideak. Jendea Urkulura mugatzen da.

**San Juan eliza eta Otala dorrea daude auzoan.**

Meza urtean hiru hilabetetan esaten da. Eliza polita da eta badauka bere balioa. Gertatzen da ez dagoela zabalik jendeak ikusteko.

**San Juan jaiak ospatzen dituzue. Zer egiten duzue?**

Aste bukaeran afaria egiten dugu auzotarrek. Auzo-lanean ingurua garbitzen dugu, afaria, meza, luncha... baserri bakoitzak bere San Juan sua egiten du.

MONUMENTUAK

## Otalora dorretxeak antzinako boterea erakusten du

Aozaratzara iristean Otalora dorretxea ikusten da, antzinako botere eta distiraren aztarnak mantentzen dituen eraikina: armarria, errenazentista itxurako begiratokia, sabai-apaindura dotorea teilatu-hegalean... Gaur egun dorretxea pribatua da eta, horren ondorioz, ezin daiteke barrutik ikusi. Hala ere, aparkalekua erabilgarria da; eta, hain zuzen, aparkaleku hori erabiltzea bultzatu gura dute.

San Juan bataiatzailearen elizan otaloratarren kapera berezia dago. Mendietak esan digunez, bertan Otalora familiako kideak daude lurperatuta.

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
URTARRILEKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: *kluba@goiena.com*
Kuota: 45 euro

EUSKARAZKO JOSTAILUAK
Bidali KLUBA JOSTAILUAK [Bazkidearen izena] 5195 zkra.
Ikastolen Elkartea

UMEENTZAKO LIBURUAK
Bidali KLUBA LIBURUAK [Bazkidearen izena] 5195 zkra.
PAMIELA argitaletxea

SASKIBALOIRAKO SARRERAK
Bidali KLUBA BASKET [Bazkidearen izena] 5195 zkra.
LAGUN ARO SAN SEBASTIAN GIPUZKOA BASKET

GOIENAKO PENDRIVE-A
Bidali KLUBA PENDRIVE [Bazkidearen izena] 5195 zkra.
Goiena Komunikazio Zerbitzuak

SARI NAGUSIA
URTARRILA-MARTXOA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
JOCCA RACLETTE
• Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
• Ez du oliorik behar.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

Gabonen aurretik jakin zuen Jose Luis Elkororen familiak hura askatzeko egindako eskaerari Entzutegi Nazionalak ezezkoa eman diola. Hortaz, zortzi urteko zigorrari aurre egin beharko dio Elkorok. Erabaki horren aurrean familiaren iritzia jasotzeko Elkororen emazte Mari Karmen Aiastuirekin izan gara. Senideek jasaten duten egoeraz ere berba egin digu Aiastuik.

**Mari Karmen Aiastui** > Jose Luis Elkororen emaztea

# "Miaketak direla-eta erabaki dugu aurrez aurreko bisitetara ez sartzea"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

**"Esperantza barik eta ilusio barik" daudela esan digu Elkororen emazteak erabaki horren ondoren. Animoz ondo dagoen arren, osasunez gaizki ikusi du senarra. Hala, egoera horren aurrean ezinbestekoa ikusten du herritarren inplikazioa.**

**Joan den domekan egon zinetan azkenekoz Jose Luisekin. Zein da haren egoera?**

Gaur?... ez dago ondo. Gu domekan joan ginen bisitan. Irten aurretik, goizean, beste preso batek deitu zigun esateko ez beldurtzeko hura gurpildun aulkian ikusita.

Esan digunez, lunbagoarekin hasi zen eta orain ziatika dauka. Ezin da ibili… dago ziegan sartuta eta ezin da irten. Horren ondorioz, migraina asko dauzka. Esan behar da 74 urte dauzkala, 75 egin behar ditu martxoan.

**Medikuaren bisita izan du, baina ez dago erizaintzan.**

Ez dago erizaintzan, nahiz eta guk uste genuen eramango zutela. Ziegan dago. Hasiera batean, nahiko gogor zegoen, baina ikusten dugu denbora aurrera doan heinean osasunez okerrago dagoela. Egoera ez da ona, kartzela kartzela da.

**Eta, nola aurkitu duzue animoz?**

Ondo dago, gertatzen dena da minez egoten dela; adibidez, migraina asko ditu. Bestalde, lau preso politiko daude 11. moduluan. Nork bere ziega dauka, baina patioan egoten dira. Laguntasuna ematen diote. Adibidez, orain, ezin denez ohetik jaiki, besteak arduratu dira guri telefonoz deitzeaz. Euren deiak galdu dituzte guri deitzearren.

**Jose Luisen osasuna eta adina kontuan hartuta aske uztea eskatu zenuten, baina Gabonen aurretik ezezko erantzuna jaso zenuten.**

Eskatu genuen aske uztea irail amaieran. Prostatako minbizia pasa du Jose Luisek, eta analitikak egin dizkiote; oraingoz ondo dagoen arren, ez dauka osasun onik. Horregatik, eta batez ere adinagatik, eskatu genuen aske uztea.

Badago lege bat esaten duena 70 urtetik aurrera aske lagatzeko aukera dagoela. Horri helduta eskatu genuen askatasuna, baina Gabonen aurretik jaso genuen ezezko erantzuna. Analitikak onak izan direnez, osasunez izugarri ondo dagoela esan digute!

**Ezezko erantzun horren aurrean, ze neurri hartu behar duzue?**

Ez dute askatuko, eta legalki ezin dugu beste inora joan. Ez dago beste biderik. Oso gaizki hartu dugu erabaki hau. Guk esperantza geneukan askatuko zutena; eta baita hark ere. Hura kontziente da adin horrekin espetxean egotea ez dela erraza. Zortzi urteko kondena dauka eta bete egin beharko du. Ez daukagu beste aukera legalik.

**Jose Luisek nola hartu du erabaki hau?**

Gaizki hartu du, baina guri ez digu hori transmititzen. Gainera, ahalegintzen gara horretaz berbarik ez egiten. Bi hilabete goaz aurrez aurreko bisita barik. Hortaz, 40 minutu ditugu kristal atzean egoteko. Mila gauza daukagu kontatzeko, baina 40 minutu motz geratzen dira. Gainera, jakinda grabatu egiten digutela…

Badakigu euren egoera psikologikoaz baliatzen direla kartzelan; hortaz, hainbat gairen gainean ez dugu berbarik egiten.

**Beste kontu bat da azkenaldian kartzeletan senideek jasaten duzuen egoera.Izan duzue arazorik?**

Bai, azken bi hilabeteetan ez ditugu aurrez aurreko bisitak izan. Eskatzen ditugu eta ematen dizkigute, baina gero, hara goazenean, miaketak izaten ditugu. Eta gu ez gaude prest hori jasateko. Gainera, barrutik eskatu digute ez sartzeko.

Bi hilabete dira egoera hau jasaten duguna. Guk eskatzen duguna da aireportuetan bezalako gailuak izatea… Ikusten duguna da ez dela Dueñasen bakarrik. Kartzela askotan gertatzen dabilen egoera da, egun batetik bestera hasi ziren. Gure kasuan ez, baina beste batzuetan biluzteko edo prakak kentzeko eskatu izan diete senideei.

**Senideen kolektiboak hartu du neurririk egoera horren aurrean?**

Horren aurrean, senideen artean hartu da erabakia, gure kasuan kartzela barrutik, aurrez aurreko bisitetara ez sartzeko. Guk pentsatuta geneukan egoera hori ez jasatea; baina, gainera, gure senideek kartzela barrutik esan dute eurak ez direla jaitsiko aurrez aurreko bisitetara, guk egoera hori ez jasateko.

Guk jarraitu egiten dugu aurrez aurreko bisitetara joaten, nahiz eta jakin ez garela sartuko. Borrokatzeko hartu dugun modua da.

**Aurrera begira zer geratzen zaizue?**

Esan zuk ze esperantza geratzen zaigun… Ez daukagu esperantzarik, eta ez daukagu ilusiorik. Bide legala itxi egin da gure kasuan; hortaz, beltz ikusten dugu. Geratzen zaigun bakarra jendea mugitzea da.

**Adibidez, Bilboko manifestazioa positiboa izan zen.**

Jende asko mugitu zen eta horrek animoak eman zizkigun. Baina horretan bakarrik ezin da geratu… bai partiduek eta bai gizarteak ez badute beste pausorik ematen, ezer gutxirako balio du Bilboko manifestazioak.



Mari Karmen, familiako etxearen aurrealdean. A.E.

ATENTZIOA

**"Ez dago erizaintzan, nahiz eta guk uste genuen hara eramango zutela"**

ANIMOAK

**"Fiskalaren erabakia gaizki hartu duen arren, ez dugu horretaz berbarik egiten"**

MANIFESTAZIOA

**"Bilboko manifestazioa ondo dago, baina haratago joan behar dugu"**




Laster
GIDA 2010
zure etxean!

Gida osatuena
erabilgarriena eta berriena.

Zure herriko
denda eta enpresen
telefonoen gida.

Aurten ere Gida komertziala
*Goiena.net* atarian!
*http://goiena.net/gida*

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

## kale inkesta

# Elurra egiten duen bakoitzean zuk zeuk neurri berezirik hartzeko ohitura izaten duzu?



**Eulogio Diez**
Erretiratua
Bergara

Errusian eman ditut urte asko eta hortaz, ohituta nago elur artean ibiltzera. Ez nau izutzen eta ez dut aparteko neurririk hartzen. Martokon bizi naiz eta han ez du elurrik botatzen. Elurra baino izotza da okerragoa.



**Dimitrina Kirilova**
Langilea
Bergara

Ez dut neurri berezirik hartzen. Ni Bulgariakoa naiz eta hangoarekin alderatuta, hemen oso elur gutxi egiten du. Nik Bergaran egiten dut lan; baina, mutilak autoa hartu behar izaten du lanera joateko eta kateak ditu.



**Basilisa Muñoz**
Langilea
Bergara

Elurra egiten duenean, oinetako eta arropa egokiak janzten ditut kalera joateko. Aldi berean, autoa ez hartzen saiatzen naiz, oinez joaten naiz. Bestela, normal irteten naiz kalera, ez dut beldurrik.



**Manu Curado**
Langilea
Bergara

Autoan kateak eramaten ditut beti. Behin baino ez ditut jarri behar izan Bolutik jaisteko; baina, Eibarren egiten dut lan eta badaezpada kateak ditut. Bestalde, ez dut bestelako neurririk hartzen.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

LEINTZ GATZAGA

**> "Orain AP1 dugula-eta, beste errepideei kasurik ere ez?"**

Hori salatzeko deitu zigun debagoiendar batek joan den eguaztenean: "AP1 autobidea irekita dagoela-eta elurtearekin erabateko lehentasuna eman diote bide hori garbi izateari. Ondo dago hori, baina ikustekoa da ze egoeratan egon den Arlaban. Orain arte lehenbailehen txukuntzen zuten Arlabango mendatea, Leintz Gatzagako errepide zaharra okerrago egoten zelako, eta asteburuko elurtearen ondoren, aste barruan ere itxita egon da Arlaban".

DEBAGOIENA

**> "Elurraren aurrean Udalekin zorrotz; guk egiten dugu ezer?"**

Bistakoa da elurte baten aurrean ez gaudela behar den moduan prestatuta, baina herritar batek zera komentatu digu, "zorrotzak gara administrazioarekin, baina guk egiten dugu ezer?". Eta hain zuzen, galdera hori bota dugu kale inkestan. Garaje aurrealdea garbitzeko gatza izan, autoan neguko gurpilak izan, kateak, edota zerbitzu publikoa erabili...

DEBAGOIENA

**> Elurtearen aurrean, unean uneko informazioa**

Joan den astean deitu zigun herritar batek esanez elurtearen aurrean *Goiena.net*-en jarritako txat-a asko eskertu zuela, unean uneko informazioa izan zuelako. Herritar askoren ekarpenarekin egin zen txat hura. Goienaren partetik, eskerrik asko ekarpenen bat egin zenuten guztioi.

## usteak uste

**Txomin Madina**

# Berriz ere, Ratzinger

Ez dakit latinez, alemanez, italieraz edo beste zein hizkuntzatan esan duen. Baina aste honetan, eta beste behin, Benedikto XVI.a aita santuak esandakoek hautsak harrotu dituzte. Hainbat hedabidetan agertzen denez, Ratzinger jaunaren arabera, homosexualen arteko ezkontzek ondorengoen sorkuntza mehatxatzen omen dute.

Lehenik eta behin, kuriosoa da hitzok kastitate-botoa egina duen pertsona batek esatea. Boto hori betez gero, zaila da gero ondorengoak izatea!

Baina kezkagarriagoa iruditzen zait guzti honetatik atera daitekeen ondorioa. Hau da, homosexuala bazara, eta gogoz kontra bada ere, ezkondu kontrako sexuko pertsona batekin eta gero izan seme-alabak. Besteak, baina batez ere zeure burua engainatzen dituzula? Hori gutxienekoa da…

## zorroztailea



**Markos Balentziaga**

# Euskobarometruaz ostera be

"Euskal herritarren arteko kontratu sozial berria" martxan jarri nahi du Patxi Lopez lehendakariak legealdi honetan. "Erantzunkidetasunean" oinarrituko da kontratu hori, eta herritar "askez" osatutako "Euskadi solidarioa, jasangarria eta lehiakorra" lortzea izango du helburu.

Berria > 2010-01-15


«Herritarren arteko kontratu sozial berria» iragarri du Lopezek

Joan dan abenduan Paco Llerak zuzentzen daben Euskobarometruak ("Pacobarómetro" be esaten dotse) Lópezen Gobernuari emon zotsan ostikadiak (10 botoemolletako 7k ez dau onartzen Gobernua) ointxe be zeresana emoten dihardu.

Euskadiko korapilluak askatzera ei zetorrena, lehen pausuan, onarpenik ezian trabau da.

Lópezek jakinkillo askojakiñei egin zotsen dihar okerra zein dan jakitteko. Eta zer erantzun zotsen? Okerraren oinarrixa Euskadiko 5 botoemolletatik 1 sistemaz kanpo laga izana dala? López bera Euskadiko gehiengo soziologikuaren babesik bariko gobernu baten buru dala?

Bai, zera! Esan zotsen: Gobernuaren deskalabrua orain arte egindakua (egindako, zer?) ondo ez esplikatzetik dator.

Lópezek errealidade soziologikuari muzin egin barriro be eta kanpaña bati ekin dotsa. Hauxe da laburmotzian kanpaña horren mamiña:

– Euskal gizartiari Gobernu-ekintziaren berri emotia.

– Prentsa-kabinete bat sortzia, egindakua famatzeko.

– Gripe I(dentitario)ari kontra egittia. ("Euskal Herritxa" legezko izenaren kontrako gurutzadia, Euskal Herrixaren mapa-aldaketia telebistan, etab.)

– Hedabidietan orain arte baño sarrixago agertzia. (Egubakoitzian, berbarako, elkarrizketa luze bat egin zotsan SER radixo-kateiak Lópezi berari).

> **"Lopezek onartuko balost nik gogo onez egingo neuskio proposamen bat"**
>
> **"Zergatik ez Euskobarometrua bera debekau?**

Horixe da, onarpen-neurrixa hobetzeko "López plana".

Lópezek onartuko balost, nik, gogo onez, egingo neuskio proposamen bat plan horri: Zergatik ez Euskobarometrua bera debekau? Hara: gustatzen ez jakun errealidadia legez kanporatzen (HB, *Egunkaria*...) eskarmentu judizial-politiko politta daukagu, ezta? Aprobetxa daigun! Gañera, Aresen eta Rubalcabaren arteko *feeling*-ak lana erreztuko loskuke! Debekau daigun Euskobarometrua eta kitto arazua! Zer atxakixa erabilli horretarako? Esaterako, Euskobarometrua gustoko ez dogun zeozeren "entornuaren entornuaren entornua" dala esan. Juez-jendiak neke haundi barik ulertuko leuke. Animo, Patxi.

ASTELEHENEKO
**Goienkaria**

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Xabier Urtzelai **Erredakzioa** Mirian Biteri, Txomin Madina, Edu Mendibil **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

Arrasate > 14 Bergara > 16 Oñati> 18 Aretxabaleta > 19 Eskoriatza > 19
Antzuola > 20 Aramaio > 20 Elgeta > 20 Leintz Gatzaga > 20



> ARRASATE
Argindarra jartzea eta beste zenbait lan falta dira Aprendices-en atzeko urbanizazioan > 14



> BERGARA
Aurtengo ikasturtean 150 neska-mutikok dihardute Moises Azpiazu dantza taldean > 17



> OÑATI
Errekalde auzoa eraberritzeko 1.169.289 euro jaso ditu Oñatiko Udalak > 18



Argazkian, Iraeban baserria. Diputazioarena izan arren, Aldundiak baimena eman dio Aretxabaletako Udalari baserriaren erabilera erabakitzeko. JOSETXO ARANTZABAL

**ARETXABALETA** > AZPIEGITURAK

# Urkulu biziberritzeko milioi bat euroko inbertsioa egingo du Udalak

**BIDE BERRIA**
Etxaluze baserritik elbarrituendako egokitutako bidea egingo dute

**DIRULAGUNTZAK**
Dagoeneko 800.000 euro inguruko dirulaguntza lotuta du Udalak hainbat erakundetatik

**EDU MENDIBIL** > ARETXABALETA

Urkulu biziberritzeko prozesuan, Aretxabaletako Udalak milioi bat euro inbertituko du aurten. Oraindik ez dute aurrekontua onartu (bihar, martitzena, bigarren bilera izango dute) baina gauzak bide onetik doaz, eta dagoeneko 800.000 euro inguru lotuta dauzka Udalak hainbat erakundetatik, tartean Gipuzkoako Diputaziotik, Jaurlaritzatik eta La Caixatik.

Urkulu inguru guztia biziberritzeko Aretxabaletako Udala Naturgintza elkartearekin dabil lanean azken urteotan. Zalantzarik gabe, paisaiak eta naturaren ezaugarriek ibarreko leku erakargarrienetakoa egiten dute Urkulu. Naturaz gozatzeko aukera ederra eskaintzen du eta erabilera publikoa hobetzeko hainbat egokitzapen lan egitea beharrezkoa ikusten da. Besteak beste, Etxaluze baserritik Korueta elizateraino bide berria egiteko asmoa dauka Udalak. Elbarriendako egokitutako bidea izango litzateke aipatutakoa, Arantzazutik Gomistegirainoko bidean egin zuten bezala hain justu. Era berean, azaroan hasi ziren sastrakak kentzeko lanekin, eta maiatza ingurura arte luzatuko dituzte lanok; komenigarria den tokietan belarra eta landaretza sortzea dira helburu nagusiak. Era berean, Udalaren asmoen artean Urkuluko perimetroan diren behatokiak konpontzea dago; hegaztiak ikuskatzeko erabiltzen diren behatokiak atondu eta egokituko dituzte datozen hilabeteotan. Egurrezko mahaiak berritzeaz gain, bestelako hobekuntza lanak ere egingo dituzte erabiltzaileek ahalik eta erosoen gozatzeko Urkuluk eskaintzen dituen baliabideez.

**IRURIN, LANDETXEA**

Bestalde, Iraeban eta Iruri baserrien erabilera zehazteko dago oraindik. Irurin landetxe bat jarri nahi du Udalak, baina beste osagarri batzurekin, baserriko produktuei protagonismoa emanda adibidez. Baldintza pleguak idazteari ekingo diote berehala.

## Mendiarekin eta osasunarekin lotutako interpretazio zentroa Iraeban baserrian

Diputazioko ordezkariak abenduaren hasieran izan ziren Urkulun, Iraeban baserriari monumentu izendapena ematea posible zen aztertzeko. Ikuskapena egin zuen teknikoaren arabera, Iraeban baserriak baditu hainbat elementu berezko egiten dutena eta aldeko balorazioa egin zuen. Aurkitutako hainbat dokumenturen arabera, 1625. urtean eraiki zuten baina dituen hainbat ezaugarri aztertuta XVI. mendekoa izan daiteke. Etorkizunean izango duen erabilerari dagokionez, Inazio Garro Aretxabaletako alkatearen arabera, mendiarekin eta osasunarekin lotutako interpretazio zentroa jasoko du ziurrenik. Uda aurretik, Udaleko ordezkariak Diputazioko agintariekin batu ziren eta Diputazioak baimena eman zion Aretxabaletako Udalari baserriaren erabilera definitzeko.

**BERGARA** > SAN ANTON AUZOKO JAIAK

# Domekan San Anton eliza jendez lepo bete zen meza entzuteko



Goizean San Anton ermitara igo ziren auzotarrak, meza entzutera eta bide batez, salda eta txorizo muturra hartzera. MIRIAN BITERI

## Sanantonabat jaiak ospatu dituzte zapatutik domekara bitartean Bergaran

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Asteburuan Bergarako San Anton auzoan Sanantonabat jaiak ospatu dituzte. Ekimenak zapatuan hasi ziren, urteroko mus txapelketarekin. Zubi-berri sagardotegian jokatutako txapelketan 16 bikote lehiatu ziren. Agirre eta Pako irabazleek bildotsa eta xanpaina jaso zuten sari moduan; eta bigarren bikoteak, Txominek eta Gotzonek osatutakoak, bi untxi eta xanpaina. Txapelketa amaitzean eta txapliguak bota ostean, 19:00etan, auzotarrek txikiteoa hasi zuten.

Urteroko ohiturari jarraituz, atzo goizean San Anton auzoko ermitara igo ziren herritarrak Bergarako parroko Juan Cruz Mendizabalek emandako meza entzutera. Beste urte batzuetan gertatu ohi den bezala, eliza jendez lepo bete zen eta berandu iritsi zirenek kanpotik entzun behar izan zuten elizkizuna. Jarraian, salda beroa eta txorizo muturra jan ahal izan zituzten bertan. 40 litrotik gora eta 10 kilo txorizo gertu zituzten ermitako atarian.

**ARNAIZ, FUENTES ETA ALDEKOA**

Sabela bete ostean, beherantz abiatu ziren auzotarrak, krosa hastear zegoen-eta Zubi-berrin. 7,5 kilometroko luzera zuen ibilbidea egin eta gero, helmugara lehen iritsi zena Beñat Arnaiz aretxabaletarra izan zen, nagusien mailan; beteranoetan, 56 urteko Santiago Fuentes ermuarrak irabazi zuen lasterketa; eta emakumezkoetan, Itziar Aldekoak. Herri kirolak eta dantzaldiaren ondotik, etxeko txikien txanda iritsi zen. Neska-mutikoek ederto pasa zuten untxiak harrapatzen eta kaskarak jasotzen.



Ezagunak agurtzeko aprobetxatu zuten mezatik irtetean. M.B.



Kaskara jokoan lehia egon zen. JOSETXO ARANTZABAL



Batzuek ez zuten untxia harrapatzeko arazorik izan. J.A.



XXXIII. krosa domeka eguerdian izan zen, Beñat Arnaiz atxabaltarra izan zen azkarrena. J.A.



Gorka Bergaretxe begiralea (eskuman) pizza eskaintzen Musakolan batu ziren gaztetxoei. JOSETXO ARANTZABAL



*Guitar Hero* lehiaketarekin primeran pasa zuten gaztetxoek. J.A.

**ARRASATE** > NEGUKO JAIA

# Musakolako Gazte Txokoa berpizteko jaia zapatuan

Txatxilipurdiren deialdiarekin 13 neska-mutikok egin zuten bat zapatu arratsaldean

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Txatxilipurdiren eskutik, neguko jaia egin zuten zapatu arratsaldean Musakolako Gazte Txokoan. 12-14 urteko gaztetxoak elkartzea zen helburua, adin tarte horretako neska-mutil gutxi ibiltzen delako Musakolako Gazte Txokoan. Mondraren futbol partiduaren erruz ziurrenik, antolatzaileek nahi baino gaztetxo gutxiagok egin zuten bat deialdiarekin. 13 lagun elkartu ziren eta haiekin jardun zuten Gorka, Etor, Ainhoa, Maitane eta Aritz begiraleek. Pista amerikarrean gertatutako zirkuituan 12 proba izan zituzten eta Jon eta Iban izan ziren garaileak. *Guitar Hero* musika jokoarekin eta afari meriendarekin ere ederto pasa zuten. Urtarrilaren 30ean Valdezcarayra eskiatzera joango dira Txatxilipurdikoak eskoriatzarrekin batera.



15 gaztetxo batu ziren zapatu arratsaldeko saioan. LARRAITZ ZEBERIO

**ELGETA** > ANTZERKI TAILERRA

# Irakurzaletasuna pizteko, antzerki tailerra Elgetan

**E.M.** > ELGETA

Eibarko Zurrumurru taldearen eskutik, hirugarren mailatik gorako neska-mutikoei zuzendutako antzerki tailerra abian jarri zuten zapatuan Elgetan.

Irakurzaletasuna piztea da helburu nagusia eta gaztetxoak gustura ibili ziren zapatuko Gaztelekuko saioan. Ordu eta erdiz jardun zuten eta adi-adi jarraitu zituzten irakaslearen azalpena. Hasiera baten, beste hiru saio izango dituzte gaztetxoek hurrengo astean. Zapatukoan 15 gaztetxo elkartu ziren.

**ATEAK ZABALIK**

Udalak antolatu du antzerki tailerra. Interesa duten guztiek oraindik badute parte hartzeko aukera. Izena eman beharrik ere ez dago. Hurrengo saiora joan, eta listo. Irakurketarekin gozatzera, lagunartean.

**ESKORIATZA** > ERAKUSKETA

# Atxorrotzeko erakusketak ikusle ugari batu ditu Ibarraundin

Abenduaren 15ean zabaldutako erakusketa egubakoitzean itxi zuten; herritar ugari pasa da Ibarraundi museotik

**E.M.** > ESKORIATZA

Atxorrotxeko gaztelu zaharraren aztarnak ezagutzera emateko egindako erakusketak erantzun ona jaso du eta antolatzaileak, Udala eta Ibarraundi museoa, pozik azaldu dira jasotako ikusle kopuruarekin. Abenduaren 15ean zabaldu zen erakusketak egubakoitzean itxi zituen ateak.

Udazkenean egindako indusketa arkeologikoetan aurkitutako materiala izan da ikusgai Ibarraundin. Datozen hilabeteotan adituek izango dute materiala aztertzeko aukera eta ondoren Diputazioaren esku geratuko da ondarea. Baliteke etorkizunean beste erakusketaren bat egitea topatutako material guztiarekin.



Egubakoitzean itxi zuten Ibarraundiko erakusketa. GOIENKARIA



Aprendices eskolako atzeko parteko kalea egokituta dago, asfaltatuta, argazkiak erakusten duen moduan. IMANOL SORIANO

**HIRIGINTZA** > ZERRAJERA GUNEKO OBRAK

# Argindarra eta beste falta dira Aprendices-en atzeko urbanizazioan

Lanak bukatu barik egon arren, barruan aparkatu egiten dute askok; "ospitalera joateko, adibidez"

**UBANE MADERA**> ARRASATE

Tentazioa handia da, eta asko jausi egin dira: ospitalera edo anbulatoriora joatean, Aprendices eskolaren atzeko partean automobila aparkatuta utzi, nahiz eta ikusi obrak bukatu barik daudela. "Askok obra ixteko hesia kendu eta barruan aparkatzen dute", kontatu diote GOIENKARIAri Udaleko Hirigintza Sailetik. "Errepidea asfaltatuta dago eta lanik handienak bukatuta, horregatik ematen du obra guztiak bukatuta daudela, baina ez da horrela", azpimarratu dute.

**ARGINDARRA IPINI ARTE**

Besteak beste, argindarra da falta dena: "Iberdrolak inguru hartarako transformazio zentro berria egin du, baina ez du martxan jarri. Horrek esan gura du, besteak beste, ez dagoela argiteria publikorik. Eta argindarrik ez dagoen artean, ez dugu kalerik zabaldu behar. Adibidez, gure kasuan, han ipini dituzten lurazpiko edukiontziak probatu ere ezin ditugu egin", kontatu dute Hirigintza Saileko ordezkariek.

Hori horrela, eta Iberdrolak transformazio zentroa abiarazi arte, San Andrestik Zerrajera ingurura sartuz gero ezin da automobilarekin Saiolan eraikinetik aurrera pasa eta ospitale-guneraino iritsi.

Eta jakina, ezin da, ezta ere, Zerrajerako etxeetako sarrera aprobetxatu inguru hartara automobilez sartzeko.

**JOLASPARKEAK ETA BIDEGORRIA**

Bestalde, egoera berean daude urbanizazio horretako jolasguneak eta bidegorria. Azken hori, gainera, hesituta dago, "baina bidegorriko hesia zabal-zabalik egon da", kontatu dute Udaletik. Bada, bidegorriaren gainean urbanizazioa egiten dabilen Obegisa enpresan galdetuta, erantzun dute "bidegorriaren babes-hesi bat ipintzea falta" dela; beraz, hor beste inon baino gehiago ezin dela sartu, arriskutsu gerta daitekeelako.

**BUKATZEKO EPEA: APIRILAREN 24A**

Era beran, Obegisa enpresatik gogora ekarri dute obra hori bukatzeko epea apirilaren 24a dela; beraz, epe barruan dabiltzala. Edozelan ere, eurek duten aurreikuspena da "hilabetea bukatu aurretik edo, asko jota, otsail erdialde ingururako" bukatzea. "Hortik aurrerako guztia Iberdrolaren esku dago", azpimarratu dute.

ALDAI ETA GELMA

## Hesiak kendu eta aurrera egiten du askok

Aprendices eskola-gunean gertatzen den gauza bera gertatu da egunotan Aldaiko parke berrian eta Gelmako urbanizazioan: "Hesiak kendu eta barrura sartzen dira", diote Hirigintza Sailetik. "Adibidez, Aldaiko parkean ere ez dago argindarrik, Iberdrolaren esku dago, eta zenbait erremate ere falta dira. Eta hori guztia ikusi arren ere, jendea barrura sartzen da", gaineratu dute. Eta aditzera eman dute, baita ere, bai Aprendicesen kasuan eta baita Aldaiko kasuan ere Udala bera zein enpresa eraikitzailea badabiltzala Iberdrolaren gainean, azken batean haiek direlako "hori bukatuta ikusteko interesa duten lehenak".

**INGURUMENA** > ETXEKO OLIOAK

# Olio-edukiontziak direla eta, pazientzia eskatu dute

Otsaila amaitu baino lehen ipiniko dituzte edukiontzi berriak, elektronikoak

**U.M.** > ARRASATE

Kexuak ugaritu egin dira azkenaldian olio-poteak edukiontzietan kateatu eta edukiontziak erabili ezinda geratzen direlako.

Adibidez, Zaldibarko edukiontzia Gabonetan egon da kateatuta. Udaletik jakinarazitakoaren arabera, norbaitek gogorregi eragin eta erabat kateatuta utzi zuen. Gainerako edukiontziei dagokienez, berriz, gehienak tarteka kateatu egiten dira.

Hori horrela, askok oliopotea edukiontziaren ondoan lagatzen dute, lurrean.

Bada, azalpenak eskatuta, Udalak "pazientzia" eskatu gura die herritarrei. Eta olio-poteak lurrean utzi beharrean etxera eraman ditzatela. Dena den, adierazi dute edukiontziak egunero ikuskatzen dituztela eta desataskatu ere egiten dituztela.

Hori bai, onartu dute ez dabiltzala ondo edukiontziok. Udal iturrien esanetan, sistema da kale egin duena, aspa bitartez dabilen sistema delako eta eskuz eragin behar zaiolako.

**BUKATZEKO EPEA: OTSAILA**

Edozelan ere, hori edukiontzi berriekin konponduko dela ere gaineratu dute: "Elektronikoak dira, erabiltzeko errazagoak".

Edukiontzi berriei dagokienez, ipinita behar zuten, baina enpresak eskatu du epea atzeratzea. Orain, otsailaren amaiera baino lehen ipiniko dituzte.



Olioz betetako ontziak Otalorako edukiontziaren ondoan, lurrean. U.M.

> UDALA

### Aparkaleku publikoen tarifak finkatuko ditu gaur udalbatzak, ezohiko osoko bilkuran

Arrasateko aparkaleku publikoen 2010erako prezioak finkatuko dituzte gaur zinegotziek, 19:00etan. Bestela esanda, Biteriko eta Laubideko aparkalekuen tarifak. Horrez gainera, Abaroa berriaren eraikinaren obren jarraipena egingo dute, eta Ferreriasen plaza eraikitzen hasi ahal izateko beharrezkoa den lursaila eskuratzeko prozedura abiaraziko dute. Hau da, *Kuku*-ren atzeko aldeko lursaila eskuratzeko prozedura. Urtarrilari dagokion bilkura da gaur udalbatzak egingo duena.

> OBRAK

### Iturbideko obrak bukatzeko data berria zehaztu, eta martxorako bukatuko dituztela iragarri dute

Atzeratuta dabiltza Iturbide egoitza berritzeko obrak. Datak ikusita, nahiko atzeratuta. Berez Gabonetarako bukatuko zituztela esan arren, lanen erritmoa moteldu, eta orain iragarri dute behin betiko amaiera data martxoa dela. Sarrerako obrak dira falta direnak. Bestela esanda, Abaroako lehengo tabernari dagozkion obrak. Solairu horretan zegoen guztia bota egin dute, eta orain, zerbitzu berriak egokitzen hasita daude. Gainerako guztia bukatuta dago: hau da, Iturbideren lau solairuak eta azpi-sotoa berritzea.

**OBRAK** > URBANIZAZIO LANAK

# Extremadurako granitozko harria jarriko dute Kanpatorpe kalean

Urtarrilaren 12an hasi ziren lanak eta bi hilabetez luzatuko dira; kareharrizko zorua altxatu eta granitozkoa jarriko dute, baita argiteria aldatu ere


Excavaciones Arrasate enpresa ari da Kanpatorpe kale estrategikoaren urbanizazio lanetan. J.B.

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Alde zaharrean ematen ari den joerari jarraituz, Kanpatorpe kaleko zoruko harria granitozkoa izango da obrak amaitzen direnean.

Aurreikusitako moduan, Gabonak amaitu eta berehala hasi dira Kanpatorpe kaleko lanekin. Joan den martitzenean, urtarrilak 12, itxi zuten kalea. Oraingoz Iturriotz kalera arte bakarrik itxi dute. Alde zaharreko urbanizazio planeamenduaren barruan kokatutako lana da, eta zorua altxatu, argiteria aldatu eta saneamendu lanak egingo dituzte. Udalak bi hilabete eman dizkio Excavaciones Arrasate enpresari lanak amaitu ditzan. Udalak, aurrekontua murrizten saiatu bada ere, 93.000 euro gastatuko ditu.

**GRANITOA, MATERIAL EGOKIENA**

Orain arte egon den zorua kareharrizkoa zen. Eta Obra Saileko Elena Letek adierazi duenez, "material ona den arren, ez da nahikoa kale horretarako". Izan ere, oso aldapatsua da eta batez ere bustita dagoenean, eroriko bat baino gehiago egoten da bertan. Hala, granitozko harria jarriko dute, Letek dioenez, "material egokiena delako". Extremadurako granitoa ekarriko dute, Quintanako harrobikoa, hain zuzen. Dorre azpiko lauzak eta kaleko galtzada harriak ezberdinak izango dira. Lehenek 50 zentimetroko luzera eta bost zentimetroko lodiera izango dute, eta bigarrenek, aldiz, 20 zentimetroko luzera eta 15 zentimetroko lodiera.

**GALTZADA-HARRIAK, ENKANTEAN**

Udalak enkantean jarri zituen Kanpatorpeko harriak, eta bi partikularrek interesa erakutsi zuten. Hala, batek dorre azpiko lauzak erosi ditu eta besteak, ordea, kaleko galtzada-harriak.

Bestalde, argiteria ere aldatuko dute, Letek dionez, "egungo azpiegitura eskasa" da-eta. Hormako bi farola kenduko dituzte eta farola berriak jarriko dituzte, kaleko bi aldeetan. Gainera, arkuak eta elementu arkitektoniko aipagarriak ere argiztatuko dituzte.

**KIROLA** > AUKEAREN ESKAINTZA

## 2009an spinning eta pilates izan ziren herritar gehien erakarri zituen lehorreko jarduerak

Egun 700 erabiltzaile inguru ditu Aukeak; emakumezko gehiago dago baina urtez urte gero eta gizonezko gehiago animatzen dira


Spinning ikastaroak 113 erabiltzaile ditu. GOIENKARIA

**J.B.** > ARRASATE

Ez da berria Aukeak arrasatearrendako kirol eskaintza zabala duela Musakolako kiroldegian. Herritarrek badute horren berri, eta horren adierazle garbia da 2009an Aukea kirol zerbitzuak 700 erabiltzaile inguru izan zituela. Atzean geratu dira garai bateko gimnasia eta aerobikeko eskaera finkoak. Orain askoz zabalagoa da eskaintza eta, horren ondorioz, herritarren eskaera. Jarduera berriek erantzun ona izan dute; body balance ikastaroak, esaterako, 22 erabiltzaile izan zituen.

Lehorreko jarduerak dira herritar gehien erakartzen dituztenak: 600 erabiltzaile inguru. Eta horien artean, spinning eta pilates dira nagusi; lehenak 113 erabiltzaile ditu, eta bigarrenak, berriz, 94. Ur jarduerek, bestalde, 100 erabiltzaile dituzte.

**DENETARIK, DENENDAKO**

Bada, 2010ean eskaintza hobetzeko asmoa dute. Guztira lehorreko zein uretako 22 jarduera inguru dituzte, eta gainera, fitness gela, kirol medikuntza eta masaje fisioterapia zerbitzuekin jarraitzeko asmoa dute. Jarduerak mota askotakoak izango dira: dantzagarriak –aerobik, batuka, body jam...–, biziak –spinning, body pump...– edo lasaiak –body balance, pilates, yoga...– Haur, gazte eta helduendako ekintzak dira. Gainera, behar bereziak dituztenendako eskaintza ere badago.


SANTAMAS KOMISIÑOA

## Txerriaren zozketaren irabazlea

**Santamasetako txerriaren zozketak badu irabazlea. Duela aste batzuk eman zuen aditzera Santamas komisiñoak zenbaki irabazlea –2.595– eta orain zenbaki horren jabea nor den jakinarazi du: Inmaculada Sanpedro arrasaterra da zorteduna. Irudian, komisiñoko kide den Luis Pagoaga, Sanpedrori 500 euroko saria ematen.**

**UDALA** > ONGIZATE ZERBITZUA

# Kale hezitzaile zerbitzua lehiaketara atera du Udalak

Baldintza berriekin atera du lehiaketara. Adin txikikoen artean egon daitezkeen arrisku egoerei aurre hartzea izango da helburu nagusia

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Adin txikikoen eta gazteen artean egon daitezkeen arrisku egoerei aurre hartzeko zerbitzua kontratatzeko deialdia egin du Udalak. Roberto Martinez Ongizate zerbitzuko zinegotziak azaldu duenez, martxo aldera hasiko da martxan zerbitzu hori, kontratazioko prozesu administratibo guztia bukatu eta gero; eta gehitu du zerbitzuaren oinarrian, bi hezitzailek jardungo dutela kalean gazteekin lanean, bata gizonezkoa eta bestea emakumezkoa, zinegotziak gehitu duenez.

**EREDU BERRIA**

Ongizate sailak orain arte ere izan du kale hezitzaile zerbitzua. Hain justu, iazko irailera arte bi hezitzailek jardun dute kalean gazteekin lanean. Hala ere, eredua aldatu nahi izan du eta baldintza berriekin atera du lehiaketara; helburuak zabaldu egin dituzte prebentzioari garrantzia handiagoa emanez, eta ez hainbeste interbentzio zehatzei: "Orain arteko eredua oso zentratuta zegoen Gizarte Zerbitzuetan prebentziorako detektatuta ditugun kasuetan. Aurrerantzean asmoa da horietan bakarrik zentratzeke, esparrua gazte guztietara zabaltzea, egoera kaskarrean egon daitezkeen beste gazte zein egoera batzuk detektatzeko eta interbenitzeko", azaldu du Roberto Martinezek.

Izan ere, kale hezitzaileek egin dute lan orain arte, laguntza behar zuten gazte horiekin, baina aurrerantzean esparrua erabat zabaldu eta gazte guztiekin egingo dute lan, laguntza behar duten beste gazte zein egoera batzuk antzeman ahal izateko.

DATUA

**2**

**HEZITZAILE**

Zerbitzu horren baitan bi hezitzaile gaztek jardungo dute gazteekin lanean, taldeko bat gehiago balira bezala. Bata, gizonezkoa izango da, eta bestea, emakumezkoa.

**ZERBITZUA LEHIAKETARA**

Zerbitzua lehiaketara atera du Udalak eta aurkezteko epea da hil bukaera arte. Proposamenak aurkeztu behar dira udaletxeko erregistroan, astelehenetik egubakoitzera, 09:00-13:00 ordutegian. Kontratuak hasiera baten urtebeteko iraupena izango du, nahiz eta urtez urte luzatzeko aukera egongo den, gehienez hiru urtera arte. Lizitazio oinarria 62.000 eurokoa da.

Zerbitzu berriaren baldintzak eskuratzeko zein informazio gehiago jasotzeko jo *www.bergara.net* webgunera.

**JENDARTEA**

## Aniztasun Astea eguenean hasiko da

Gora behera batzuk tarteko, egunetik zapatura izango dira ekitaldiak

**M.B.** > BERGARA

Azken orduko aldaketa batzuk direla medio, Aniztasun Astea ez da martitzenean hasiko, hasiera baten iragarrita zegoen bezala, hilaren 21ean, eguena, baizik; eta irekiera ekitaldia, kultura etxean izango da, 18:30ean, Barruso alkatearen eskutik.

Zapatuko herri bazkariari dagokionez, Artatse elkartean izango da, 14:30ean eta bazkarirako txartelak hiru euro balioko ditu. Herrialde askotariko jakiak dastatzeko aukera egongo da.




MONIKA BELASTEGI

## Usondoko komun berriak erabilgarri daude

Errege ostetik erabilgarri dago Usondo parkeko komun publiko berria. Erabat berritu du Udalak barruko aldetik eta gizon, emakume zein mugikortasun arazoak dituztenendako bakarra egin dute. Horrekin batera, sarrera ere aldatu egin diote: erreka aldetik izan beharrean, errepide aldetik dauka. Udaletik jakinarazi dutenez, 09:00-21:00 ordutegia izango du, Domingo Irala kaleko komun publikoak bezala, eta udaltzainak arduratuko dira zabaldu eta ixteaz.

**INAUTERIAK** > LEHIAKETA

## Bihar da kartel lehiaketara aurkezteko azken eguna

Hain justu, 13:00etan amaituko da Aratusteetako kartela aurkezteko epea

**M.B.** > BERGARA

Aratusteak iragartzeko Udalak deitutako kartel lehiaketan parte-hartzeko epea amaitzear dago. Hain justu ere, bihar, martitzena, bukatuko da lanok aurkezteko epea, 13:00etan. Herrian bizi edo erroldatutako edonork har dezake parte. Teknika eta koloreak norberak aukeratuko ditu baina aurkeztu beharko da 40x60 cm-ko oinarri baten gainean, eta formatu bertikalean. Era berean, informatika disketе batean ere aurkeztu beharko da. Horrez gain, testuak eroan beharko du honako esaldi hau: Aratusteak 2010, Bergara.

Sariari dagokionez, 350 euro jasoko ditu irabazleak, nahiz eta epaimahaiak erabakiz gero lanek ez dutela gutxieneko kalitaterik, sariketa hutsik gera daitekeen. Epaia jakitera ematen den egunean jakinaraziko dute epaimahaia nork osatu duen.

**KARTELAK IKUSGAI**

Lehiaketan parte hartuko duten kartelekin erakusketa egingo dutela aurreratu dute Udal iturriek. Hain justu ere egubakoitzean, hilaren 22an hasi eta otsailaren 19ra arte egongo dira ikusgai, kultura etxean.

> ARGITALPENA

### Musika eskolaren 25. urtemugako liburua salgai jarri dute

Bergarako Musika eskolak 25. urteurrenena kaleratutako *Bihotz alaia dugulako* liburua salgai dagoela ekarri dute gogora musika eskolakoek. 10 euro balio ditu liburuak eta eskura daiteke musika eskolako idazkaritzan, Lazkano zapata-dendan eta Matxiategiko Saloki dendan. Eskolaren sorrera, ibilbidea eta argazki ugari jasotzen ditu, besteak beste.

> ZERBITZUAK

### Hilaren 26an batuko dute baserri inguruan sortutako plastikoa

Debagoieneko Landa Garapen elkarteak ematen du zerbitzu hori. Urteko lehen zerbitzua egingo du hilaren 26an, datorren martitzenean. Hori horrela, gogora ekarri dute plastikoa laga behar dela ohiko lekuetan, arratsaldez: Ugarrixan, granja parean; Murinondon, trenbide ondoan; eta San Juanen, eliza aurreko plazatxoan.



Moises Azpiazu dantza taldean ari diren gaztetxoetako batzuk, entseguen gelan. EDU MENDIBIL

**KULTURA** > EUSKAL DANTZAK

# Moises Azpiazu dantza taldea, osasun ezin hobean

Aurtengo ikasturtean 150 neska-mutikok dihardute dantza eskolak jasotzen

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Dagoeneko 39 urte bete dira Moises Azpiazu dantza taldea sortu zutenetik eta arduradunek tinko jarraitzen dute lanean gaztetxoen artean dantza zaletasunari eusteko. Aurtengo ikasturtean 6-13 urte bitarteko 150 neska-mutiko ari dira dantza ikasten, kopuru benetan deigarria beste hainbat herritako datuekin alderatuz gero. Maite Lazkano eta Irantzu Lizarralde dira taldeko arduradunak eta haiekin batera Ibane Basetak eta Miren Errastik ematen dizkiete dantza eskolak gaztetxoei.

Entseguak Seminarioan egiten dituzte, astelehenetik eguenera bitartean, arratsaldez. Maite Lazkanoren arabera, momentu ederrean dago taldea: "Jende pilo bat daukagu eta zoritxarrez, zenbait dantzariri ateak ixteko beharrean egon gara ez zegoelako denendako lekurik. Ikusten da gaztetxoen artean badagoela ikasteko gogoa eta hori beti da pozgarria. Belaunaldi berriak gogor datoz atzetik eta erreleboa badago beraz...". Aurreko urteotako tendentziari eutsita, Moises Azpiazu dantza taldean neskak dira nagusi, nabarmen gainera; "Bai, neskak errazago etortzen dira dantza eskoletara mutilak baino... Hamabost bat mutiko ditugu aurten maila ezberdinetan", dio Lazkanok.

Eskolak emateen urrian hasi ziren eta San Juanak bitartean iraungo dute entseguek.

**BI BIKOTE TXAPELKETATAN**

Txapelketan bi bikotek hartuko dute parte: Joanes Plazaolak eta Elena Sasietak batetik eta Martin Oteizak eta Mariñe Diazek bestetik. Gabonetan amaitu zuten denboraldia eta udaberrian, maiatza aldera, ekingo diote denboraldi berriari.



IÑIGO ZAITEGI

## Bergara KEko Gabonetako saskia

Bergara Kirol Elkarteak Gabonetan zozketatutako saskia Karlos Zangituk eraman du etxera. Argazkian, Pedro Rico Bergara KEko presidentearen eskutik saria jasotzen. Bigarren saria (Kanarietara bi lagunendako bidaia) Jon Ander Egañarendako izan da eta hirugarren saria, berriz, Multiopticas Larrañagarena, Loreto Lalindezek irabazi du.

**HEZKUNTZA** > LEHIAKETA

## 'Bergara ezagutzen', DBHko 4. mailako ikasleei zuzendutako kultura lehiaketa

Aranzadi Ikastola, Mariaren Lagundia eta Ipintzako ikasleek elkarrekin jardungo dute hilaren 25ean, 26an eta 28an

**E.M.** > BERGARA

Ipintza institutua, Mariaren Lagundia eta Aranzadi Ikastolako DBHko 4. mailako ikasleek *Bergara ezagutzen* lehiaketa jokatuko dute. Lehiaketaren helburua Bergararen inguruko curriculuma osatzea da eta hortaz, Bergarako historia, kultura, ondarea, kirola edota euskararen gaineko galderak izango dira lehiaketaren ardatza.

Hiru saio izango dira: urtarrilaren 25ean, Aranzadin; hilaren 26an Ipintzan; eta azkena, finala, Mariaren Lagundian jokatuko da urtarrilaren 28an. Lehen bi saioak 9:00etatik 11:00etara izango dira eta finala, berriz, 11:00etatik 13:00etara.



Bergarari buruzko galderak asmatu beharko dituzte ikasleek. GOIENKARIA

**ELKARLANEAN**

Euskal Herriak Bere Eskolak, Jardunek, ikastetxeek eta Udalak eramango dute lehiaketa aurrera eta ikastetxeetako ikasleak elkarrekin jardungo dute, 16 laguneko hiru talde osatuz. Gin-kana ere izango dute herrian zehar. Otsailaren 20an Valdezcarayra Udalak antolatuko duen gaztetxoendako eski irteera doan izango dute irabazleek.



Moiua kaletik hasita Errekalde auzoari buelta osoa emango dion bidea egingo dute; autoendako bidea eta espaloia maila berean jarriko dituzte. MIREIA BIKUÑA

**OBRAK** > URBANIZAZIO LANAK

# Errekalde eraberritzeko 1.169.289 euro jaso ditu Udalak

Udalak Madrilgo Gobernuaren E-planaren bigarren fasetik jasoko duen diru kopurua da

Oztopo arkitektonikoak kendu, abiadura moteldu eta oinezkoen bideak hobetu egingo dituzte, besteak beste

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

E-planaren bigarren fasean Oñatiko Udalari dagokion dirulaguntza Errekalde auzoaren eraberritzea hasteko izango da. Guztira, 1.169.289 euro erabiliko dituzte auzoa zeharkatzen duen errepidea eta inguruak hobetzeko, oztopo arkitektonikoak kentzeko, autoen abiadura moteltzeko eta oinezkoendako bideak hobetzeko, besteak beste. Dena den, auzoan duten aparkaleku gabezia ez dute orain konponduko.

Eguenean osoko bilkura berezia egin zuten Errekalde auzoa eraberritzeko proiektua onartzeko. Udal arduradunek esan dute proiektua Errekaldeko batzordeko kideekin adostu dutela, eta euren iradokizunak aintzat hartu dituztela.

Epeak betetzen badira, lanak apiril bukaeran hasi eta azaroaren 30erako bukatu beharko dituzte.

E-planaren diruarekin, baina, Moiua kaletik Errekalde herri eskolarainoko lanak egingo dituzte. Errekaldeko 23. zenbakitik beherako errepidea 2011n konponduko dute.

**AUTOEN BIDEA, ESTUAGOA**

Auzoa zeharkatzen duen errepideak itxura berria izango du. Autoendako bidea asfaltozkoa eta estuagoa izango da: 3,5 metrokoa, hain zuzen. Gehienezko abiadura 30 kilometro ordukoa izango da auzo osoan eta bizikletek lehentasuna izango dute.

Bi alboetan espaloiak jarriko dituzte, baina guztia maila berean. Hala, oztopo arkitektonikoak kenduko dituzte. Oinezkoen bidean zuhaitz txikiak landatu eta argia beherantz ematen duten farolak jarriko dituzte.

**ZEBRA-BIDERIK EZ**

Egun auzoan dauden aparkalekuetako gutxi batzuk kendu egingo dituzte. Gainera, bateriako aparkalekuak kendu eta luzetarako aparkalekuak jarriko dituzte.

Eguenean onartu zuten proiektuaren arabera ez dute zebra-biderik margotuko, baina pasabide berezi batzuk zehaztuko dituzte. Itsuei pasabideak non dauden adierazteko lurrean seinaleak jarriko zaizkie. Horretarako, material berezia erabiliko dute.

**PLANIFIKAZIOA**

Auzoa eraberritzen hasi aurretik plangintza egokia egin gura dute udal arduradunek lanak egingo dituen enpresarekin. "Ezin dugu auzo guztia hankaz gora jarri aldi berean. Lanak egingo dituen enpresarekin adostuko dugu. Postetxe inguruko eraberritzea bezala, zatika egingo dugu, eta, ahal dugun neurrian, oztopo gutxi jarrita. Baina bertako bizilagunek eragozpenak nabarituko dituzte", dio Idoiaga alkateak.



Oinezkoendako bide berrietan ezingo dute autorik aparkatu. MIREIA BIKUÑA

> DEIALDIA

## Emakumeendako autoestimu tailerra antolatu dute

Udaleko Gizarte Zerbitzu Sailak emakumeendako autoestimu tailerra antolatu du. Hain zuzen ere, 45 urtetik gorako emakumeendako tailerra da. Interesatuek Gizarte Zerbitzuetako bulegoan edo 943 03 77 00 telefonoan eman dezakete izena, eta gaur da azken eguna. Gehienez 15 emakume onartuko dituzte, eta tailerra doakoa izango da.

Autoestimu ikastaroa otsailean hasiko dute. Hilero bi arratsaldetan elkartuko dira kultura etxeko bilera geletan. Guztira, 27 orduko tailerra egingo dute Amaia Aldamaren eta Mamen Anteloren gidaritzapean. Eskolan landutakoa praktikan jartzeko aukera izango dute.

> INFORMATIKA

## Askotariko ikastaroak egingo dituzte KZgunean

Urtarrilean zehar askotariko ikastaro eta tailerrak egingo dituzte kultura etxeko KZgunean. *Oinarrizko Interneta eta E-administrazioa* delako ikastaroa hilaren 18tik 29ra egingo dute gazteleraz. Egun bakarreko ikastaroak ere badituzte; besteak beste, *Wikipedia*, hilaren 20an; *Picnik: editatu argazkia*, hilaren 21ean; *Facebook sare soziala*, hilaren 22an; *Posta elektronikoa*, hilaren 26an; eta, *Google sites*, hilaren 29an.

Izena emateko 943 08 16 34 telefonora dei daiteke, edo *tutor.onati@kzgunea.net* helbidera mezua idatzi. KZgunea zabalik dago astelehenetik eguaboitzera 09:30etik 13:00etara eta 16:30etik 20:30era.

## oharrak

TXOTXONGILOAK

**> 'Irudimendeko hiria' emanaldirako gonbidapenak**

Gorakada taldearen txotxongilo emanaldirako gonbidapenak Elkar Hezi ikastetxeko idazkaritzan eta kultura etxean eskura daitezke. Emanaldia zapatuan egingo dute, Santa Ana antzokian, 17:00etan, 5 urtetik aurreragoko umeendako.

ZINEMA

**> 'Rocknrolla' pelikula zineklubean**

Guy Ritchiren pelikula emango dute eguenean zineklubean, 20:00etan. Gerard Butler, Thandie Newton, Tom Wilkinson eta Gema Arterton dira protagonistak. Bestalde, hilaren 28an *Still walking* filma emango dute.

**ARETXABALETA** > PINTURA

# Eibarko Topaleku aretoan du erakusketa Gurutze Mujikak

Egubakoitzean inauguratu zuen eta domekara bitartean egongo da zabalik

Hamazazpi margolan ditu ikusgai, gehienak paisaiak baina natura hilak ere badaude



Gurutze Mujikak 20 urte daramatza margolanak egiten. JULEN ABASOLO

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Areantza auzoko Etxebarri baserrian bizi den Gurutze Mujika margolariak erakusketa jarri du Eibarko Topaleku aretoan. Egubakoitzean zabaldu zuen eta domekara bitartean izango dira ikusgai margolanak.

**20 URTE LANEAN**

Azken urteotan egindako hamazazpi lan eroan ditu Arrasate margo taldeko kide den Mujikak Eibarrera, gehienak paisaiak dira, baina natura hilak ere badaude. Natura du oso gustuko eta baserri ingurua aprobetxatzen du margotzeko: "Zuhaitzak, basoak, inguruko auzoak… Tartean elurtutako paisaia batzuk daude". Argi dauka margotzerakoan ez duela kopiatze hutsa egin gura; hala, "pinturarekin artea egiten" saiatzen da: "Barruan dudana espresatzen saiatzen naiz, barruko hori ateratzen".

Pinturak zeresan handia dauka Mujikaren bizitzan eta egunero saiatzen da tartetxo bat egiten: "Sarri margotzen dut, eta egin ezin dudan egunetan behintzat pinturei begira egoteko astia hartzen dut". Dagoeneko hainbat lan dauzka eginda, batzuk oparitu egiten ditu eta beste batzuk enkarguz egin: "Baina margolan bakoitzarekin neure denbora hartzen dut, hortaz, ez dut sortu horrenbeste".

Dagoeneko 20 bat urte daramatza margolanak egiten Mujikak baina aurrera begirako asmo zehatzik ez dauka "margotzen jarraitzea", besterik ez. Oraingoan Eibarren jarri du erakusketa baina laster Aretxabaletan bertan izan daiteke. Hain zuzen, 2004an izan zituen lanak ikusgai udaletxeko ganbaran. Herritarren batek Eibarrera joan gurako balu erakusketa ikustera jakin dezala Zuloagatarren kaleko 3. atartean dagoela Topaleku aretoa. Eta hona ordutegia: aste egunetan (19:00-21:00); eta zapatu eta domekan (12:00-14:00 eta 19:00-21:00).

**ESKORIATZA-ARETXABALETA** > IRTEERA

# Eskiatzera doaz gazteak urtarrilaren 30ean

Materiala dutenek 20 euro ordaindu behar dituzte hilaren 24a baino lehen; gainontzekoek, 40 euro




Iaz ere Valdezcarayra joan ziren gazteak. GOIENKARIA

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Urtero moduan, eskiatzera joango dira hil bukaeran Eskoriatzako eta Aretxabaletako 12 eta 17 urte bitarteko gazteak. Urtarrilaren 30ean, Valdezcarayko estaziora joango dira. Irteera horretan izena eman nahi dutenek hilaren 24ra arte, domeka, izango dute aukera gaztelekuetan edo Gazteria zerbitzuetan.

Gaztelekuetatik ohartarazi dute plaza kopurua mugatua dela, autobusaren araberakoa. Horrekin batera, azaldu dute materiala eroaten dutenek 20 euro ordaindu beharko dituztela; eta 40 materiala alokatu nahi dutenek. Azken horiek, gainera, eski edo snow taula, zenbat neurtzen duten eta oinetakoen zenbakia jakinarazi ko dute. Autobusa 06:45ean irtengo da Aretxabaletatik eta 07:00etan, Eskoriatzatik. Bestalde, gogorarazi dute egunpasa dela eta hortaz, bazkaria norberaren ardura izango dela.

**ESKORIATZA**

## Etzi egongo da tutorea herriko KZgunean

Arratsaldean egin ahal izango dira bi orduko ikastaroak, 16:30etik 20:00etara

**M.B.** > ESKORIATZA

Urtarrilean behin baino ez du bisitatuko tutoreak Eskoriatzako KZgunea. Etzi, eguaztenean, izango da udal liburutegian dagoen gunean, 16:30etik 20:00etara.

Esandako arratsaldean honako ikastaroak egin ahal izango dira, besteak beste: sare sozialak, *Skype*, *Google* tresnak, *Blogger*, *Youtube*, *Wikipedia*, *Google Maps* eta *Earth*, zuhaitz genealogikoa, *Megaupload*, *Softonic*, *Gmail*, *Flickr*, *Wifi*, *Picnik*, Ikus-entzunezkoak, *Google Docs*, *Ebay*, software librea, *Google Sites*, *Linkedin*, *Google Calendar*, *Paypal*, *Google* itzultzailea eta *Euskalterm* eta *Google Reader*. Eguaztenean eskainiko diren ikastaro guztiak bi ordukoak izango dira.

**ESKORIATZA**

## Domekan mus txapelketa egingo dute

Inkernu tabernan eman daiteke txapelketan parte hartzeko izena

**M.B.** > ESKORIATZA

Eskoriatzako Inkernu tabernak Euskal Herriko Mus Txapelketa hartuko du domekan, urtarrilak 24, 16:00etan. Aitzorrotz kultura elkartetik jakinarazi digutenez, horretarako izenematea zabalik dago. Interesa duenak bikotea aurkitu eta jarraian, Inkernura joan behar da; izena ematerako orduan bikoteko 20 euro ordaindu beharko dira.

Txapelketa horren kanporaketan Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako herritarrek parte hartu ahal izango dute.

**SARI BIKAINA**

Euskal Herriko Mus Txapelketako aurtengo irabazleak txapela, garai ikurra, 3.000 euro eta lau lagunendako bidaia lortuko du.



Zapatu goizean gaztelekuan egin zuten antzerki tailerreko lehenengo saioa. L.Z.

**ELGETA** > ANTZERKI TAILERRA

# Ipuin bat antzezteko helburuarekin lanean

## Entonazioa, mugimenduak eta inprobisazioa landuko dituzte besteak beste zapatuan hasi eta beste hiru saio izango dituen antzerki tailerrean

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Udalak antolatuta Eibarko Zurrumurru antzerki taldekoek zapatuan abiarazi zuten Elgetako I. antzerki tailerra.

Hirugarren mailatik gorako umeei zuzendua irakurketa sustatzen du ekimenak helburu nagusia, baina beste hainbat alor ere landuko dituzte bertan. "Gure lehenengo helburua da umeek ondo pasatzea", azaldu du hezitzaile lanetan diharduen Nerea Ariznabarretek. "Umeekin batera ipuin bat aukeratu dugu, eta jolasen bitartez entonazioa, mugimenduak eta sormena landuko ditugu, besteak beste. Saiatuko gara tailerraren amaieran aukeratu dugun ipuin hori jendaurrean antzezten".

**SORMENARI LEKUA**

Jolasean hainbat ariketa egingo dituzte umeek. Beti ere ipuinaren testua oinarri hartuta pertsonaia ezberdinen karakterizazioa egingo dute. "Sormenari lekua egingo diogu", adierazi du Ariznabarretek. "Inprobisatzen ikasiko dugu eta jendaurrean soltura hartzeko ere balio izango du. Antzerki tailerrak aukera ona izaten dira sormena potentziatzeko, lotsak kentzeko eta norberarenganako eta taldekideenganako konfiantza lantzeko".

**BESTE HIRU SAIO**

Lehenengo saioa egin dute, baina beste hiru gelditzen dira oraindik. "Egokiena da tailerra hasi eta amaierara arte egitea. Lehenengo saioan entonazioa landu dugu. Gure asmoa da datorren astean mugimenduak lantzea", aurreratu du Ariznabarretek. "Jokoak egingo ditugu. Eskuekin gauzak esaten saiatuko gara, eta taldekideek zer esaten ari garen asmatu beharko dute".

Hezitzaileen esanetan horrelako tailerren beste onuretako bat da parte-hartzaile guztiak maila berdinean daudela. Agian talentu berriak deskubrituko dituzte Elgetan.

**ANTZUOLA** > AZPIEGITURAK

# Antigua eta Errekalde auzoetako argiteria konponduko dute datozen hilabeteotan

## Antzuolako Udalak Estatu fondotik jasoko duen diruarekin egingo dituzte lanok; behin esleituta, hiru hilabetetan egingo da

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Madrildik datorren E-planaren diru-laguntza aprobetxatuko du Antzuolako Udalak Antigua eta Errekalde auzoetako argiteria berritzeko.

Lanok egiteko aurrekontua 39.337,22 eurokoa da. Asmoa da martxorako esleipena egitea, eta behin hori eginda lanok egiteko hiru hilabeteko epea egongo da.

Argiteria azpiegitura berritzeak izango duen zailtasun tekniko txikiak direla-eta, ez da beharrezkoa izango proiektua idaztea. Hala, Udaleko zerbitzu teknikoak arduratuko dira aipatutako bi auzoetako lanak gainbegiratzeaz.

**ZAHARKITUTA GERATU DA**

Pedro Iturbe alkateak lanok egiteko "beharra" azpimarratu du. Izan ere, auzoa zaharkituta geratu da, eta gaur egungo argiteria azpiegitura ez da egokiena.

Antigua eta Errekaldeko argiteria sareak ez du eroale neutroa eta hainbat tokitan, ezta babesgarririk ere. Hala egingo dituzten lanekin sarea hobetuko da, eta neurri batean, baita segurtasuna ere. Esan behar da lurrerako eroalea jarriko dutela argiteria azpiegitura guztian.

**ARAMAIO** > KULTURA

# Bertsotan taldeka jarduteko lehiaketa antolatu dute

## Bertso sorta kolektiboen lehiaketa antolatu du Arabako Bertsozale Elkarteak; 15 urtetik gorako gaztez osatutako taldeek hartuko dute parte

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Arabako gazteek, oraingo honetan, taldeka jardun beharko dute bertsotan. Bertso sorta kolektiboen lehiaketa antolatu du Bertsozale Elkarteak; Arabako koadrilen arteko lehiaketa izango da. Parte-hartzaileek, lehenengo, idatziz aurkeztu beharko dituzte bertsoak, eta, lehiaketan parte hartzeko aukeratuak izaten badira, jendaurrean abestu beharko dituzte gero. Gainera, musikaz lagunduta kantatzea hobetsiko da.

Gutxienez lau eta gehienez hamabost laguneko taldeak osatu ahalko dira. Talde bakoitzak bertso sorta bakarra aurkeztu ahalko du; hiru, lau edo bost bertsoz osatutakoa.

Urtarrilaren 25ean amaitzen da izena emateko epea; horretarako, 945 01 05 05 telefono zenbakira deitu behar da edo *araba@bertsozale.com* helbidera mezu bat bidali. Bertso-sortak, paperean, otsailaren 6a baino lehen aurkeztu beharko dira; epaimahaiak otsailaren 12rako jakinaraziko du eskualde bakoitzetik zein talde sailkatuko diren kanporaketetarako. Otsailaren 19an hasi eta martxoaren 27an amaituko dira kanporaketak eta finalerdiak, berriz, apirilaren 11n, 18an eta 25ean izango dira. Txapelketako finala Gasteizko Auzolan frontoian izango da maiatzaren 8an. Lehiaketaren informazio zabala eskura daiteke *www.bertsozale.com* webgunean.




Lehiaketaren kartela. GOIENKARIA

**LEINTZ GATZAGA** > AISIALDIA

# Batzarra du Gurelek gaur, zuzendaritza aldatzeko

## Bi urterako sartuko dira bi kide berri zuzendaritza batzordera

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteak gaur, astelehena, du batzar orokorra (18:00). Bazkide guztiek dute gonbidapena eta kultura etxean elkartuko dira zuzendaritza batzorde berria aukeratzeko asmoarekin.

**PRESIDENTEA ETA IDAZKARIA**

Lau lagunek osatzen dute elkarteko zuzendaritza eta bi urterako hartzen dute ardura. Azken bi urteotan presidente izandako Nerea Marurik eta idazkari lanak egin dituen Aitziber Gorosabelek utzi egingo dute batzordea eta bi horien ordezkoak hautatu beharko dituzte. Zuzendaritzan jarraituko dutenak, ostera, Bea Alvarez eta Dorleta Elkorobarrutia dira. Behin kideak hautatuta karguen banaketa egingo dute lauren artean; hala ere, izendapenak izendapen, guztiek izango dituzte eginbeharrak.

**INAUTERIAK ANTOLATZEKO**

Batzarrean elkartutakoek orain arte egindako lanaren gainean jarduteko aukera izango dute: ludoteka eta liburutegiaren martxa, Gabonetako oporretan egindako ekintzak… Eta aurrera begira egin daitezken ekitaldien proposamenak ere gustura jasoko dituzte batzordeko kideek.

Zuzendaritza berria, gainera, berehala hasi beharko da lanean ate joka daudelako Inauteriak. Hain zuzen otsailaren 13an, zapatua, ospatuko dituzte Gatzagan eta zein ekitaldi antolatu ume eta gazteendako erabaki beharko dute. Hori adostutakoan antolaketa lanak etorriko dira eta horiek ere lehenbailehen egitea komeni.

# Kirola



**> FUTBOLA**
Aretxabaletak bana egin zuen Retuertoren kontrako partiduan **> 22**



**> SASKIBALOIA**
Lehen nazional mailako partidua bertan behera argindar arazoengatik **> 25**



**> ELKARRIZKETA**
MUko Iker Barberorekin izan gara saskibaloiaren gainean berbetan **> 27**




Carballares, Mora golegileari baloia ematen, lehen zatiko irudi baten. JOSETXO ARANTZABAL



Barandiaran estrategia jokaldi bate gertatzen, taldekideekin. JOSETXO ARANTZABAL




Eskoriatzako taldea, partiduaren atarian. EDU MENDIBIL

# Garrantzi handiko garaipena Eskoriatzako taldearentzat

## EUSKAL LIGA

Lehen itzulia amaituta, sailkapeneko seigarren tokian da Eskoriatza

ESKORIATZA
**5-2**
KURUTZIAGA

**Eskoriatza** > Borja Garcia, Asier Souto, Ronald Blanco, Emilio Gomez, Aratz Kortazar, Victor Carballares, Jorge Mora, Jon Barandiaran, Andoni Castro, Koldo Azkue, Fernando Cubillo eta Kevin Merino.

**Kurutziaga** > Gerardo Etxamurru, Beñat Rivas, Felix Leibar, Ander Reigadas, Roberto Garcia, Gaizka Olabarri eta Roberto Ingunza.

**Epailea**> Iñaki Santos, arabarra. Borja Garciari, Kortazarri, Morari, Rivasi, Reigadasi eta Roberto Garciari atera zien txartel horia.

**EDU MENDIBIL** > ESKORIATZA

Garaipena eskuratu arren, Patxi Nevado Eskoriatzako entrenatzailea ez zegoen pozik partiduaren amaieran. Haren esanetan, denboraldiko partidurik txarrenetakoa jokatu zuten eskoriatzarrek Durangoko Kurutziaga taldearen aurka, zapatu arratsaldean Intxaurtxueta kiroldegian.

Esan bezala, hiru puntuak etxean geratu ziren baina Intxaurtxuetan batutakoek ez zuten gozatzerik izan norgehiagokarekin. Durangarrek kantxako bost jokalari baino ez zituzten ekarri eta aldaketa bakarra egiteko aukera izateak partidua baldintzatu zuen neurri handi batean. Hala ere, ustezko desabantaila horrek sendotasuna eman diezaioke talde bati, baldin eta fisikoki jokalariek azken segundora arte erantzuten badute behintzat. Logikoa denez, partiduaren amaieran, behera egin zuten durangarrek, batez ere 4 minuturen faltan etxekoek bosgarren gola egindakoan.

**MORAREN 'HAT-TRICK'-A**

Lehen minututik etxekoei kosta egin zitzaien durangarren defentsan hutsuneak topatzea. Areto futbolean ohikoa denez, *tiki-taka* jardun zuten bi taldeek zelai erdian, baina hortik aurrera nahikoa lan egin behar izan zuten area ingurutan arriskua sortzeko. Azkenik, hainbat abaguneren ostean, Morak egin zuen partiduko lehen gola, 10. minutuan, Gomezen erdiratze on errematatuz. Beñat Rivasek, durangarren jokalari onenak, banakoa egin zuen 14.ean, baina atsedenaldiaren aurretik Eskoriatzak beste bi gol egin zituen, Moraren eta Kortazarren bitartez. Lehen zatia amaitzeko 9 segundoren faltan egin zuen Kortzarrek 3-1ekoa, gol psikologiko horietako bat. Ordurako baina nabarmenak ziren Nevadoren kexak aulkian: *"No estamos en el partido"* errepikatzen zien jokalariei behin eta berriz.

Bigarren zatian jokoak ez zuen hobera egin. Berriro ere falta bat aprobetxatuta, Kortazarrek bere bigarren gola sartu zuen, lehen minutuan, eta handik gutxira Garciak aldea gutxitu zuen (4-2). Borja baloia urruntzeko zorian izan zen; lan ona egin zuen etxekoen atezainak, baita Merinok ere lehen zatian. Kantxako jokalariei dagokienean, Barandiaranen hanketatik etorri zen arrisku gehien.

Bizkaitarrak gehien borrokatzen ari zirenean, Morak, faltaz, *hat-trick*a egin zuen; lasaitasunaren gola. Lehen itzulia amaituta, Eskoriatza sailkapeneko 6. tokian dago. Mailari eusteko helburua posible dirudi. Nevadoren arabera, grinari eta borrokari eutsi beharko diote. Hasteko, Santurtziko San Jorge liderraren kantxan, hurrengo astean.

BIGARREN MAILA

## UDA Orlyk Urritzari irabazi: 3-1

Egubakoitzean, bigarren mailako UDA Orly eta Urritza taldeen arteko partidua izan zen Almenen. Etxekoak nagusitu ziren, 3-1. Aretxabaletarrek partidu ona egin zuten eta 3-0 aurreratu ziren markagailuan, Javi *Mono*-k (2) eta Joseba Gonzalez *Fofo*-k egindako golei esker. Billabonako Urritza taldeak partiduaren amaiera aldera lortu zuen aldea murriztea, penalti baten bidez. Ordurako aretxabaletarrek bosgarren falta eginda zeukaten eta penalty bikoitzaren arriskua zegoen, baina bisitariek ez zuten horretarako aukerarik izan. Joan den urtean mailaz igo zen UDA Orlyk 14 partidu jokatu ditu, 6 irabaziz, hiru berdinduz eta bost galduz. Sailkapenaren erdialdean dira.



Aretxabaletako Aitor Azpiazu, zelai erdian, Retuertoko Serrano gainditu nahian, Oinatz taldekidea begira duela. JOSETXO ARANTZABAL

**FUTBOLA** > HIRUGARREN MAILA

# UDAk irabazteko merituak egin arren, berdinketarekin konformatu behar

## Imanol Rodriguezek egin zuen UDAren gola eta Retuertok banakoa egin zuen amaieran

## Markagailuan 1-0ekoa zela, etxekoek partidua erabakitzeko hainbat aukera galdu zituzten

UDA

**1-1**

RETUERTO

**UDA** > Gaizka, Raul, Alain, Iban, Andoni, Haritz, Imanol, Borja (Julen Eraña, 15. min.), Oinatz, Aitor (Iker, 46.min.) eta Ander (Aitor, 87. min.).

**Retuerto** > Lopez, Bujan, Garcia (Iglesias, 82. min.), Barandiaran, Serrano, Chamorro, Castresana, Lertxundi, Ferrero, Tocado (Jurado, 36.min.), De la Varga.

**Epailea** > Berasategi, Tejadas eta Anduaga marrazainen laguntzarekin. Protestatuta izan zen epailearen lana. Etxekoen partetik Haritzek eta Ibanek ikusi zuten txartela, Ibanek bigarrena 88. minutuan. Retuertoko Barandiaran, Serrano eta Lertxundiri ere txartel horia atera zien eta Juradok bigarrena ikusi zuen 86. minutuan.

**Bestelakoak** > Ohiko ikusleak Ibarran, 400 lagun inguru. Harmailetan, Imanol Idiakez Real B taldeko entrenatzaileak, Aitor Mendibil Realeko kontseilari aretxabaletarrarekin jarraitu zuen partidua, notak hartuz. Bi aste barru, Realak Ibarran jokatuko du.

**EDU MENDIBIL** > ARETXABALETA

Hiru puntuak eskuratzeko aukera paregabea galdu zuen UDAk atzo, Retuertoren aurkako partiduan. Bizkaitarrak sailkapeneko behealdeko postuetan dira eta UDAk, bost jardunaldi zeramatzan partidurik irabazteke. Atzo, garaipena etxekoena zela zirudienean, bi puntu ihes egin zieten Ibarratik, azken minutuetan. Kolpe gogorregia Igor Gordobilen taldearentzat.

Lehen zatia nahiko parekatuta izan zen. Ez zen apenas gol aukerarik izan, bi taldeak elkarren beldur balira moduan. Bi taldeentzat ere garrantzi handiko partidua zen atzokoa. Jarraipenean, etxekoak argi eta garbi atera ziren garaipenaren bila. Iker Oruetaren zelairatzea erabakigarria gertatu zen. Arrisku handia sortu zuen Oruetak eskumako hegaletik. Lehen gol aukera garbia Oinatzek izan zuen, 60. minutuan. Defentsa atzean utzi, bakar bakarrik geratu zen atearen aurrean, baina gehiegi gurutzatu zuen baloia. Handik bi minutura, Oruetak intentzio handiz jaurti zuen golera eta Lopez atezainak erantzun ederra eman zion. Imanol Rodriguezek lehen abisua eman zuen 65. minutuan, urruneko jaurtiketa baten bitartez. Jarraian, Anderren pase bikaina jaso ondoren, 1-0ekoa egin zuen; atezainari *driblin* egin eta sarera bidali zuen baloia. Gol ederra. UDAren momentu onenak ziren eta Orueta 2-0ekoa egiteko zorian izan zen, berriro ere atezainarekin topo eginez. Oinatzek ere jokaldi bikain baten ondoren, zutoinera jaurti zuen 80. minutuan. Eta amaieran, garaipena UDArena zela ematen zuenean, 1-1ekoa egin zuen Ferrerok, 83. minutuan, Iglesiasen barneraldi baten ostean. Zerbait gehiago merezi izan zuen UDAk atzo.

**GAZTEEK ROMON IRABAZI**

Bestalde, gazte mailako liga nazionalean dihardUen UDAk 1-3 irabazi zuen zapatuan Romon. Liga txapelketa txukuna egiten ari dira Iban Rodriguezen jokalariak eta sailkapeneko 7. tokian dira orain; jokatutako 18 partiduetan 28 puntu eskuratu dituzte. Hurrengo jardunaldian 11. tokian dagoen Antiguoko hartuko dute Ibarran.

**Imanol Rodriguez** > UDAko aurrelaria

## "Guztiondako kolpea izan da azken minutuetan gola jasotzea"

**E.M.** > ARETXABALETA

**Imanol Rodriguez izan genuen atzoko partiduko protagonistetako bat. Aretxabaletarren gola egiteaz gain, lan bikaina egin zuen, sarritan arriskua eramanez bizkaitarren area ingurura. Zazpigarren gola du atzokoa. Gol bikaina izan zen eta UDAko atezain eta prestatzaile fisiko izandako Jon Anderri eskaini zion.**



E.M.

**Aukera ederra galdu duzue gaur partidua irabazteko, ala?**

Bai, markagailuan abantaila lortu ondoren, izan ditugu hainbat aukera partidua erabakita uzteko, baina ez dugu asmatu ate aurrean eta gure despiste baten ondoren berdinketa etorri da. Irabazteko merituak egin ditugu, baina hemen ez dago barkatzerik...

**Gol bikaina egin duzu.**

Garrantzitsuena baina taldeak irabaztea da... Irabazteko moduko partidua zen gaurkoa.

**Zer esan dizue entrenatzaileak aldageletan, partidu amaieran?**

Aurrera egin beharra dagoela. Pozik zen taldearen lanarekin baina guztiondako kolpea izan da azken minutuetan gola jasotzea.

**Datozen bi jardunaldietan benetan kontrario zailak dituzue.**

Horrela da, bai. Zornotza liderrari bisita egingo diogu hurrengo astean eta bi aste barru Reala etorriko da Ibarrara. Puntu guztiak borrokatzea baino ez zaigu geratzen.

**FUTBOLA** > OHOREZKO ERREGIONALA

# Tenak Peña Barandari eskainitako golaren ondoren 'askatu' zen Mondra

Lehenengoan trabatuta egon ziren bi taldeak, bigarrenean etorri ziren golak

Azken lau partiduetan hamar puntu batuta atzean geratu dira jaitsiera postuak



Lopez baloiarekin -min hartuta erretiratu zen- Muruaren eta Illarten begiradapean. JOSETXO ARANTZABAL

MONDRA
**2-0**
HONDARRIBIA

**Mondra** > Ander, Oier, Illar, Kepa, Laspiur, Tena, Gari (Heriz, 65. min), Ekain, Muruamendiaraz, Bereziartua, Lopez (Jokin Pavo, 75. min).

**Hondarribia** > Iker, Andres, Sagarzazu, Llorente (Agirre, 75.min), Zaballos, Balda (Eric, 80. min), Cervantes, Martin, Mikel, Endika, Xabier (Azkue, 89.min).

**Zigorrak** > Epaileak bost txartel hori erakutsi zituen: Mondratik Maikelek eta Enrike Tenak. Hondarribiatik, berriz, Martin Valenciak, Andresek eta Iñigo Azkuek.

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

"Bost defentsekin jokatzen dugu, baina horrek ez du esan nahi talde defentsiboa garenik, puntan hiru jokalarirekin jokatzen dugulako". Mondrako zale bat baino gehiago harrituta dabil etxeko taldeak Mojategin bost defentsekin jokatzen duelako, eta hori da, hain zuzen, zapatuko partidua amaituta Azkargortari galdetu geniona. Antzuolakoak garbi erantzun zuen, irribarre bat ahoan zuela, eta gainera, azken asteotako esperientziak esaten dio atzealdeko seriotasun horretan oinarrituta egiten duela gero Mondrak gora, eta batu dituen emaitzak batu.

Mondrak ondo irabazi zion Hondarribiari, baina ez erraz; ez da gauza bera. Lehenengo zatia ez zen ona izan, eta kanpotarrek egin zituzten meritu handiagoak. Vila-real taldean jokatzen duen Joseba Llorenteren anai Mikel Llorentek gidatuta Hondarribiak izan zuen gol aukera garbiren bat –20.minutuan Hondarribiako aurrelariak atezain aurrean bakarrik geratzeko pasea jaso zuen, baina marrazainak banderatxoa altxa zuen. Ez zegoen jokoz kanpo–. Mondrak, korner batean Tenaren burukadan izan zuen 1-0ekoa egiteko modua, baina kanpora joan zen erremateа. Ez zen askoz gehiago egon.

**BIGARRENEAN HOBETO**

57. minutuan Hondarribiako Andresek eskuaz errematatuta sare artera bidali zuen baloia, baina epaileari ez zion ziria sartu. 8 minutu geroago, baina, euren atean jaso zuten ordaina: kornerra ondo erdiratu, eta Muruaren errematеari bikain erantzun zion Iker atezainak. Atzetik etorri zen, baina, Tena, trena moduan, eta ahal zuenarekin emanda sare artera bidali zuen baloia (1-0). Tenak berak eta gainontzeko jokalariek eztarriak urratzen (animatzen) ari ziren Mondrako zale Peña Barandakoei eskaini zien gola. Detaile polita –Gazteak egoten diren baranda kili-kolo dago, inork min hartu baino lehen konpondu behar da–.

Gol horrek askatu zuen Mondra, eta Hondarribiako atzelariek lagunduta orduan estutu zuen Mondrak gehien. Herizek seigarren martxa sartu zion partiduari, eta kontraeraso azkarrean Jokin Pavok egin zuen lasaitasunaren gola (2-0).

**FUTBOLA** > OHOREZKO ERREGIONALA

## Kontrarioaren atean aukera gehiago izan zituen Aloña Mendik Ordiziak baino

Oñatikoak esku hutsik itzuli diren Ordiziatik, ate aurrean izan zituzten gol aukeratan fin ibili ez zirelako penatuta

ORDIZIA
**0-0**
ALOÑA MENDI

**X.U.** > BERGARA

Ordiziaren eta Aloña Mendiren arteko partiduan indarrak parean egon baziren ere, kontrarioaren ate aurrean Aloñak izan zituen gol aukera garbienak: "Hirugarren minutuan aukera ona izan dut nik, baina buruz egindako erremateа gehiegi gurutzatu dut", adierazi zuen partidua amaitutakoan Roberto Idigorasek.

**JOKOZ BAI, ATE AURREAN EZ**

Ez zen gol aukera bakarra izan, baina Pablo Diezen mutilak jokoan bai, baina ate aurrean ez ziren trebe ibili. Ordiziak gutxi jokatu zuen, baloi geldiko jokaldiren baten izan zuten aukeraren bat, baina ezer garbirik ez: "Lehenengo gol horretan asmatu izan bagenu seguruenik gehiago etorriko ziren atzetik, izan ditugulako aukerak". Entrenatzaile berriak nahiko pozik amaitu zuen partidua, ez horrenbeste emaitzarekin, baina bai taldeak eman zuen itxurarekin.

**FUTBOLA** > OHOREZKO ERREGIONALA

## Bergararendako ez zen nahikoa izan orain arteko lehen zati onena egitea

Urteagak faltaz eta Cabanillasek kontraerasoan egin zituzten golak; 60. minututik aurrera beherakada etorri zen

HERNANI
**2-2**
BERGARA

**X.U.** > BERGARA

Manu Diazek gustura amaitu zuen partiduko lehenengo zatia. Markagailuan 0-1 aurretik –Urteagak egin zuen gola, ezker hankarekin falta oso ondo botata– eta bigarren zatira begira sentzazio oso onak batuta. Orain arteko lehenengo zati onena moduan definitu zituen Diazek hasierako 45 minutuak, eta bigarren zatia ere ez zen txarto hasi. Cabanillasek egin zuen 0-2koa, ondo amaitutako kontraeraso azkar batean.

**BEHERAKADA NABARMENA**

Baina, 60. minututik aurrera Bergarak beherakada handia izan zuen, eta orduan etorri zen Hernani gora: "Gure taldean ez da aitzakia, baina egia da jokalari aldetik justu samar gabiltzala, eta horrek eragina izan du. Hernaniren zelaitik puntu bat ekartzea ez da emaitza txarra, baina 0-2 irabazten joan eta gero ez gara pozik geratu, ez".

> ERREGIONAL PREFERENT.

### Antzuolak bana, eta Aretxabaletak 2-1 Lazkaoren kontra

Erregional preferentean dabiltzan Aretxabaletaren (21) eta Antzuolaren (19) artean bi puntuko aldea baino ez dago, eta bi taldeak daude erdi inguruan.

Antzuolak puntu bat ekarri zuen zapatuan Elgoibartik, eta Aretxabaletak 2-1 irabazi zion Lazkaori.

> EMAKUMEZKOAK

### Bergarak 10-0 irabazi zuen Aloña Mendiren kontrako derbian

Emakumezkoen ligan Bergarako (15 puntu) neskek errepaso polita eman zieten Aloña Mendikoei (8), 10-0 irabazita, baina sailkapenean ez dira gauzak aldatu. Lider dagoen Mondrak (30), bestalde, 9 jokalarirekin eta entrenatzaile gabe azaldu zen Elgoibar izan zuen kontrario (10-0).

**SASKIBALOIA** > LEHEN NAZIONAL MAILA

# MUren partidua bertan behera argindar arazoengatik

Atsedenaldian Iturripeko argindarraren automatikoa arazoak ematen hasi zen

Ointxe!-ko ordezkari, zale eta jokalariak haserre erretiratu ziren etxera, instalazioengatik kexu

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
**32-31***
URDANETA

**MU** > Aranzabal, M. Anasagasti, Moracho, Balanzategi, X. Anasagasti, Rodriguez, Barbero, Arejolaleiba, Barrena, Gonzalez, Bidaburu, Isasa.

**Urdaneta** > A. Llamosas, Mazo, Claramurt, Zorrozua, Paredes, I. Llamosas, Aperribai, Comonte, Perez, Galvan, Gutierrez.

**Epaileak** > *Colino eta Apaolaza jaunek pazientzia handiz jokatu zuten atsedenaldian. Baina, ordu eta laurden itxaron eta gero bertan behera utzi zuten partidua.



Partiduko epailea, norgehiagoka bertan behera uzteko unean. J.A.

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Ointxe!-ko presidentetik hasi eta kadete mailako entrenatzailearekin amaituz, zapatuan Iturripen ziren jokalari, zale eta klubeko ordezkariak haserre erretiratu ziren etxera. Lehen nazional mailako entrenatzaile Javi Zurbano ere ez zegoen brometarako, baina oraingoan ez zen taldeak erakutsitako joko mailagatik –atsedenaldian markagailuak 32-31 erakusten zuen moreen alde–.

Lehenengo bi laurdenak normal jokatu zituzten kantxan bi puntu baino gehiago jokoan zituzten Mondragon Unibertsitateak eta Urdanetak. Gauzak asko aldatzen ez badira bi talde horiek kontrario zuzenak izango dira kategoriari eusteko erabakigarria izango den jaitsiera fasean, eta zapatuko garaipen edo porrota kontutan hartuko dute fase erabakigarrian. Horregatik, aste barruan Urdanetak jokalari onenak eskura ez zituelako partidua atzeratzea eskatu zuenean MUko ordezkariek ez zuten zalantzarik izan: ez dago aterapenik. Txakur-zahar legez, ona izatetik tonto izatera pauso txikia dago, eta Ointxe!-koek ez zioten nahi kontrarioari horrelako erraztasunik eman nahi. Baina, MUri ez zaio inoiz baino motelago zegoen Urdanetaren kontrako *jokaldia* ondo atera, zer-eta argindar arazo batengatik.

**EZ ZEBILEN MARKAGAILUA**

Partiduaren lehenengo zatian Urdanetak gutxi egin behar izan zuen MUren parean egoteko. Buruz buru etxekoak askoz ere jokalari hobeak ziren, baina kanpotarrek lasai jokatzeari etekina ateratzen zioten. Eta, atsedenaldian etorri zen ezustekoa. Kontroleko mahaian zeudenek ezin zuten markagailuko kronometroa martxan jarri, argindarraren automatikoak salto egiten zuelako.

Klubeko ordezkariak azkar hasi ziren arazoa konpontzeko soluzio bila, eta AUKEAko mantenuko langilea ere ibili zen horretan, baina ordu eta laurden itxaroten egon eta gero, Urdanetak nahikoa zela esan eta aldagelarako bidea hartu zuen, jokalariak ordurako hoztuta zeudela esanez eta lesionatzeko arriskua zegoela gaineratuz. Justu aldagelara joan zirenean konpondu zuten matxura, baina bisitariek ez zuten kantxara itzultzeko obligaziorik. Kazetaria han zegoela aprobetxatuta, berotan, kexatzeko aprobetxatu zuten Ointxe!-ko ordezkariek: "Lotsagarria da klub moduan jokalariek AUKEAko bazkide izateko ordaindu behar izatea, eta gero baldintza hauetan egotea. Musakolako kiroldegiko kantxan 20:00etatik aurrera ezin dugu jokatu ez dagoelako langilerik, Antoñako kantxa negargarri egoten da hezetasun arazoengatik, eta Iturripe ere ikusi zelan dagoen".

> SENIORRAK

## Beasaingo kantxan Soraluce BKE taldeak garaipen garrantzitsua

Sailkapeneko azken postuan murgilduta, senior mailako Soraluce BKE taldeko mutilek behar zuten zapatuan jasotako moduko poztasun bat.

Autorecambios Goiherri taldearen kantxatik puntu baliotsuekin itzuli ziren bergararrak, kontrarioari 44-55 irabazita. Datorren asteburuan, berriz, mahoneroek erronka gogorra izango dute, lider dagoen Leihoak Zarautz izango dute-eta aurrean.

> EMAKUMEZKOAK

## Eskoriatzarendako Andraitz ez zen kontrario izan (22-59)

Eskoriatzako senior emakumezkoek Añorgaren atzetik jarraitzen dute sailkapenean, eta oraingo asteburuan ez dute hanka-sartzerik egin sailkapenean azken lekuan dagoen Andraitz taldearen kantxan (22-59).

Hain zuzen ere, datorren asteburuan liderraren bisita izango dute Intxaurtxuetan, eta hor bai alda daitekeela sailkapena.

> EUSKAL LIGA

## MUko gazteek Euskal Ligara saltoa prestatzen dihardute

Jose Mari Balzategiren mutilek otsailaren 7ko asteburuan hasiko duten Euskal Liga prestatzen dihardute: "Atsedenaldi luze honek ez digu batere onik egiten, eta maila bereko taldeen kontra lagun arteko partiduak jokatu nahi ditugu".

Hala, atzo taldea Kantabriaraino joan zen, kategoria bereko talde baten kontra lagunartekoa jokatzera.

**SASKIBALOIA** > MAILA AUTONOMIKOA

# Lider dagoen Lizuan.com taldeari kostako zaio ahaztea Zubikoan jasotako errepasoa

Bigarren itzuli osoa geratzen bada ere, zapatuan erakutsi zuen Aloña Mendik kategoriaz igotzeko asmo betea duela; egurra jaso zuen liderrak

ALOÑA MENDI
**107-81**
LIZUAN.COM

**X.U.** > OÑATI

Lider dagoena harro-harro ibiltzen ohi da batera eta bestera, eta zapatuko *errepasoaren* ondoren Azpeitiko taldeak lehenengo postuan jarraituko du, baina ustezko harrotasun hori galduta.

Izan ere, Xabi Igartuak zuzentzen duen taldeak zapatuan berriro erakutsi zuen Zubikoa euren gotorlekua dela, liderra 26 puntuko aldearekin mendean hartuta: "Lehenagotik ere bagenekien etxean jokatzen dugunean guri irabazteko kontrarioak ondo egin behar dituela gauzak, baina zapatukoa pasada bat izan zen, saskira egiten genuen jaurtiketa bakoitza barrura joaten zen", adierazi du Iagoba Gamarrak.

Hain zuzen, lehenengo laurdenetik saskiratze kopurua oso altua izan zen. Kanpotarrak hobeto hasi ziren –sei puntu aurretik– baina minutu gutxitan oñatiarrek buelta eman zioten markagailuari, eta lehenengo laurdenean 36 puntu egin zituzten (36-22). Erritmo horri eutsiz gero laugarren laurdenean markagailuak 140 puntu inguru erakutsiko lituzke.

Eta ez, Aloñakoek ez zioten erritmo horri eutsi, baina behar ere ez. Bi puntuko saskiratzeak, hirukoak, botatako dena barrura –esaterako, Gamarrak hiruko 10 saskiratze egin zituen, eta Biainek 4–. Eta barruko jokoan ere, etxekoak indartsuago ibili ziren: "Eurek oso jokalari atletikoak zituzten, azkarrak, baina ez ziren garaiak, eta barruko jokoan Mallabi eta Biain gehiago izan ziren".

**BIGARREN ITZULI OSOA**

Garaipenak sailkapenean baino azpeitiarren animuan izango du eragin handiagoa, eta noski, baita oñatiarrenean ere: "Baina etxetik kanpora kategoria honetan gauzak asko aldatzen dira. Oraindik bi partidu geratzen zaizkigu lehenengo itzulia amaitzeko, asko geratzen da, eta helburua aurreko hiru postuetan ibiltzea izango da". Lehenengo biak zuzen igoko dira, eta hirugarrenak igoera fasea jokatuko du.



GOIENKARIA

## Basauriren kontra Ford Mugarrik ez zuen hirugarren postua arriskatu

Hamaseigarren jardunaldian Barakaldoren (25) eta Egiaren (23) atzetik hirugarren postuari eutsi dio Ford Mugarri Arrasatek, Indupime Basaurik ez zuelako Musakolan aparteko zailtasunik eman.

Edu Orgazen mutilak hasieratik aurreratu ziren markagailuan, eta ia partidu osoan izan zuten hiruzpalau goleko aldea. Atsedenaldia (12-10) baino minutu gutxi batzuk lehenago estutu zuen kontrarioak gehien, baina bigarrenean etxekoek ondo bideratu zuten partidua (26-23).

> ERRUGBIA

### Universidad de Cantabriaren kontra, Isasiren mutilak ondo

Kanpanzart ART-k Universidad de Cantabria taldearen bisita izan zuen zapatuan, baina Mojategin batutakoek ez zuten ezusterik izan (25-5). Etxeko taldeko Ander Heriz izan zen albiste, lesio bat tarteko kapitainaren azken partidua izan zelako.

> ESKUBALOIA

### Aloña Mendiko neskek 33-22 galdu zuten Kukullagaren kantxan

Fisikoki alde handia zegoen bi taldeen artean, eta Ainhoa Unamunok onartu zuen Kukullagako kontraerasoen aurrean ezin izan zutela gauza handirik egin: "Guk beste talde batzuen kontra egin behar dugu gogor, badakigulako aurrean dabiltzanak beste maila batekoak direla".



ALOÑA MENDI

## Aloñako kadeteak Gipuzkoako txapeldun

Asteburuan jasotako garaipenekin erraz irabazi dute Berezao Aloña Mendiko kadeteek –erretratuan– Gipuzkoako txapelketa. Asteburuan bikain ibili dira, lan bikoitza izanda ere. Karibe Zaharraren kantxan, Legazpin, zapatuan (22-26), eta etxean, Tolosaren kontra atzo (40-22). Orain, Euskadiko txapelketaren bila joan behar.

## Futbola

### 3. MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. Amorebieta | 42 | 22 |
| 2. Real Sociedad B | 41 | 22 |
| 3. Beasain | 38 | 22 |
| 4. Zamudio | 37 | 22 |
| 5. Cultural de Durango | 37 | 22 |
| 6. Gernika | 36 | 22 |
| 7. Portugalete | 34 | 22 |
| 8. Amurrio | 33 | 22 |
| 9. Basconia | 33 | 22 |
| 10. Elgoibar | 31 | 22 |
| 11. Santurtzi | 29 | 22 |
| 12. Arenas | 28 | 22 |
| 13. Leioa | 27 | 22 |
| 14. Aretxabaleta | 27 | 22 |
| 15. Laudio San Rokezar | 25 | 22 |
| 16. Lagun Onak | 25 | 22 |
| 17. Zalla | 25 | 22 |
| 18. Retuerto | 21 | 22 |
| 19. Eibar B | 21 | 22 |
| 20. Salvatierra | 9 | 22 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Amurrio-Reala | 0-1 |
| Salvatierra-Amorebieta | 1-3 |
| Aretxabaleta-Retuerto | 1-1 |
| Leioa-Lagun Onak | 1-2 |
| Portugalete-Eibar | 1-1 |
| Elgoibar-Arenas | 1-0 |
| Zamudio-Santurtzi | 0-1 |
| Basconia-Laudio | 0-0 |
| Cultural Durango-Zalla | 2-1 |
| Beasain-Gernika | 1-1 |

**Hurrengoak**

Amorebieta-Aretxabaleta

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. Zarautz | 38 | 18 |
| 2. Aurrera de Ondarroa | 38 | 18 |
| 3. Pasajes | 37 | 17 |
| 4. Idiazabal | 29 | 17 |
| 5. Tolosa | 29 | 17 |
| 6. Ordizia | 26 | 17 |
| 7. Berio | 24 | 17 |
| 8. Oiartzun | 23 | 17 |
| 9. Hernani | 22 | 17 |
| 10. Bergara | 22 | 17 |
| 11. Mondra | 22 | 17 |
| 12. Hondarribia | 20 | 18 |
| 13. Trintxerpe | 19 | 17 |
| 14. Aloña Mendi | 18 | 17 |
| 15. EHU Vasconia | 18 | 17 |
| 16. Euskalduna | 16 | 17 |
| 17. Real Union | 14 | 18 |
| 18. Beti Gazte | 12 | 17 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Real Union-Pasajes | 0-2 |
| Trintxerpe-Beti Gazte | 1-2 |
| EHU Vasconia-Euskalduna | 3-2 |
| Idiazabal-Ondarroako Aurrera | 3-1 |
| Zarautz-Berio | 2-1 |
| Ordizia-Aloña Mendi | 0-0 |
| Hernani-Bergara | 2-2 |
| Oiartzun-Tolosa | 0-3 |
| Mondra-Hondarribia | 2-0 |

**Hurrengoak**

Aloña Mendi-Zarautz
Bergara-Ordizia
Pasajes-Mondra

### BESTE KATEGORIAK

| | |
|---|---|
| **GAZTEEN LIGA NAZIONALA** | |
| Romo - Aretxabaleta | 1-3 |
| **GAZTEEN EUSKAL LIGA** | |
| Bergara - Añorga | 1-0 |
| **ERREGIONAL PREFERENTEA** | |
| Elgoibar - Antzuola | 1-1 |
| Aretxabaleta - Lazkao | 2-1 |
| **LEHEN ERREGIONALA** | |
| Eibartarrak - UDA Arizmendi | 3-1 |
| Urki - Mondra | 2-1 |
| Bergara - SBB Mutrikuarrak | 1-3 |
| **GAZTEEN OHOREZKO MAILA** | |
| Aloña Mendi - Lazkao | 1-1 |
| Mondra-Burumendi | 5-2 |
| **GAZTEEN LEHEN MAILA, IGOERA FASEA** | |
| Pasajes - Aretxabaleta B | 2-3 |
| **GAZTEAK, KOPA** | |
| Arizmendi - Eibartarrak | 2-1 |
| Soraluze - Bergara B | 2-3 |
| **KADETEEN OHOREZKO MAILA, IGOERA** | |
| Bergara - Aretxab.Arizmendi | 3-0 |
| **OHOREZKO KADETEAK KOPA ETA JAITSIERA** | |
| Hernani - Aloña Mendi | 4-1 |
| **KADETE MAILA, IGOERA FASEA ETA KOPA** | |
| Arrasate - Lagun Onak | 1-2 |
| Aretxabaleta - Urki | 4-0 |
| Eibartarrak - Arizmendi | 2-0 |
| Bergara - Soraluze | 3-2 |
| **EMAKUMEZKOEN LIGA** | |
| Eibar - Arizmendi | 4-1 |
| Bergara - Aloña Mendi | 10-0 |
| Mondra - Elgoibar | 10-0 |

## saskibaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **LEHENENGO MAILA MUTILAK** | |
| MU- Urdaneta | Bertan behera (32-31) |
| **SENIOR MUTILAK** | |
| Autorec. Goiherri - Soraluce BKE | 44-55 |
| Soraluce BKE B - Ruibal | 61-55 |
| Mondragon Unib.- Gabi Jatetxea | 66-43 |
| Aloña Mendi - Katu Kale | ---- |
| **SENIOR NESKAK** | |
| Andraitz - Eskoriatza | 22-59 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| STL Lizardi - MU | 45-43 |
| Aloña Mendi - Oiarso | 42-92 |
| Soraluce BKE B - Andraitz | 46-61 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Bera Bera - Eskoriatza | 25-36 |
| **KADETE MUTILAK (ERRENDIMEND.)** | |
| CD Internacional - MU | 51-59 |
| **KADETEAK MUTILAK (PARTAIDETZA)** | |
| Soraluce BKE - Aurrera Take | 71-42 |
| Aloña Mendi - Zast Zarautz | 51-46 |
| **KADETEAK NESKAK (ERRENDIMEN.)** | |
| Arizmendi Eskoriatza - Andraitz | 12-58 |
| Aloña Mendi - Soraluce | 46-39 |

## eskubaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO TXAPELKETA, GIZON** | |
| Ford Mugarri - Basauri | 26-23 |
| **EUSKADIKO TXAP. EMAKUMEZKO** | |
| Kukullaga - Verkol Aloña Mendi | 33-22 |
| **EUSK. GAZTE EMAKUMEZKOAK** | |
| Verkol Aloña - Atl. Basauri | 15-23 |
| **EUSK. KADETE EMAKUMEZKO** | |
| Verkol Aloña - Atl. Basauri | 10-25 |
| **GIPUZKOAKO LEHEN TERRITORIALA** | |
| Donibane Maj. - Soraluce BKE | 28-29 |
| Ereintza - Izarraitz Aloña Mendi | 32-19 |
| **GIPUZKOAKO GAZTE MAILA** | |
| Bergara Soraluce - Amenabar | 22-23 |
| Elgoibar - Aloña Mendi | 29-21 |

## errugbia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **SENIOR GIZONEZKOAK** | |
| Arrasate - Univ. Cantabria | 25-5 |

Harmailatik
Debagoieneko kirola GOITBn
Astelehenero 22:15ean.
Goitb Goiena Telebista
Ikustekoa!



BERGARA

# Urte berriari ongi etorria eman zioten geure gaztetxoek

**URTEKO LEHEN SAIOA** Zapatuko eskubaloi saioarekin ongietorria eman zioten aurtengo Eskola Kirolari

**UMEZ GAINEZKA** Sei taldeko hiru txanda egin zituzten. Guztira hamazortzi talde bildu ziren Labegaraietan

**ASTEBETE BERANDUAGO** Elurraren ondorioz, aurreko asteko saioa bertan behera utzi behar izan zuten gaztetxoek

NAROA ODRIOZOLA> BERGARA

Urteko lehendabiziko eskola kirol saioari ongi etorria eman zioten geure gaztetxoek zapatuan. Elurra zela eta, abenduko azken saioa eta urtarrileko lehendabizikoa atzeratu behar izan zituzten. Azkenean hilaren 16an eman zioten hasiera 2010.urteko Eskola Kirolari.

Bergarako Labegaraieta kiroldegian elkartu ziren ikastola desberdinetako taldeak eskubaloian aritzeko.

Sei taldeko hiru txanda egin zituzten. Guztira hamazortzi talde elkartu ziren Labegaraitan. Lehendabiziko sei taldeak, goizeko 9:30etan izan zuten txanda. Ondorengoak 10:30etan hasi ziren eta azkeneko sei taldeak 11:30etan. M.Lagundia, San Martin, Aranzadi, Antzuola eta Elgetako maila desberdinak lehiatu ziren.

Giro polita egon zen Labegaraitan. Umeek gogoz hartu zuten urteko lehen partidua. Gainera, amaitzean elkar agurtu zuten talde desberdinetako partaideak. Gurasoak ere bertara gerturatu ziren gaztetxoei animatzera.

**ONGI ETORRIA ESKOLA KIROLARI**

Herri kirolekin esan zioten agur urteari eta eskubaloiarekin kirol arropak berreskuratu dituzte gure gaztetxoek. Orain, hemendik eta ekainera arte ekintza ugari egiteko aukera izango dute; saskibaloia, rugbia, futbola, atletismoa, herri kirolak... Datorren astean berriz ere eskubaloia izango dute Labegaraietan.


N.O.

**San Martin D.** Zutik: Jairo, Alex, Jon, Xabi, Jon, Iñaki eta Joanes arduradunekin. Makurtuta: Kepa, Beñat, Izaro eta Olatz.


N.O.

**Aranzadi 4.** Irati, Mikel, Gorka, Unai eta Iker.


N.O.

**Mariaren Lagundia.** Atzean: Aitor, Yuriko eta Alex. Aurrean: Ioritz, Asier, Alazne, Jon, Antxon eta Xabier.


N.O.

**SAN MARTIN A.** Zutik: Miren, Miren Amaia, Lorea, Maite eta Irati. Makurtuta: Maria eta Marina.

ZER EKARRI DIZUETE OLENTZERO ZEIN ERREGEEK?



**Maite, Mireia eta Jenifer**
Aranzadi 3

Beraien taldea jokatzen zuen bitartean harrapatu genituen hiru gaztetxo hauek. Maitek Olentzerok txamarra bat, joko bat eta puzzlea ekarri diola esan zigun. Mireiari mp5 eta PSPa. Jeniferri, aldiz, Nintendoa eta liburu bat.



**Yuriko, Alazne, Alex eta Antxon**
Mariaren Lagundia

Mariaren Lagundia taldeko batzuk jokatzen zeuden bitartean, beste batzuk erne begira ari ziren. Laukote hau ertz batean zegoen taldeari animatzen. Esan zigutenez, txintxoak izan dira eta Olentzero eta Erregeek gauza asko ekarri dizkiete; jokoak, arropa... Eskubaloiarengatik galdetzean, gustuko dutela esan ziguten. Hala ere, Yurikok eta Alexek nahiago dute futbola. Alaznek saskibaloia du gogokoen eta beisbola da Antxonen kirolik gustukoena.



**Izaro**
San Martin D

Atsedenaldian hurbildu ginen Izarorengana. Esan zigunez, txintxoa izan da urtean zehar eta horregatik gauza asko ekarri dizkiote erregeek. Besteak beste, Nintendoarentzat memoria txartela izan du opari.



**Jon**
Antzuola

Antzuolako taldeak 10:30etan zuen txanda baina minutu batzuk lehenago heldu zen. Aurreko taldeak bukatzen zuten bitartean egon ginen Jonekin. Esan zigunez, gauza asko ekarri dizkio Olentzerok txintxoa izan delako.

Iker Barbero > MU saskibaloi taldeko jokalaria

# "Gogorra bada ere, jokalari nagusien kontra jokatuz ikasten da saskibaloian gehien"

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

**Iker Barbero (Arrasate, 1992) MUko hamarra da, pibota, eta gaztea izan arren poliki-poliki geroago eta ardura handiagoak hartzea tokatu zaio. Gazte mailako partiduetan taulapean nagusi, lehen nazional mailako taldearekin jokatzen duenean biderkatu egin behar izaten ditu ahaleginak: "Jokalari beteranoak eta indartsuak izaten ditudalako aurrean".**

**Saskibaloiak bizipen onak eman dizkizu aspaldi honetan. Hasteko, iaz Arizmendi Dragons taldearekin Series Colegiales txapelketako finaleraino iritsi zineten.**

Bai, eta inork ez zuen horrelakorik espero. Partiduz partidu joan ginen, ondo pasatzeko asmoarekin eta konturatu orduko Madrilen ginen, finalean.

**Aurten ere Series Colegiales txapelketan izango zarete, baina oraingoan kontrarioek gertutik zainduko zaituztete.**

Gure asmoa izango da berriro ere finalera iristea, baina badakigu iaz baino zailagoa izango dela, taldeek kontutan hartuko gaituztelako. Aurten ez dugu inor ezustean harrapatuko.

**Gabonetan izan zenuen pozik egoteko beste motibo bat, Euskadiko Kutxako torneoko MVP jokalari izendatu zintuzteten.**

Harriduraz jaso nuen saria, jokalari asko ginelako. Finaleraino iritsi ginen, eta uste dut iaz baino torneo hobea egin genuela. Baina, Euskadiko kadete mailako selekzioaren kontra ezin izan genuen irabazi. Dena dela, arlo pertsonalean pozteko moduko saria izan zen, bai.

**Eta orain gutxi Gasteizko Buesa Arena pabilioian ikusi zaitugu, gaueko mate ikusgarrienetako bat egiten.**

[Barre]. Series Colegiales txapelketan esku hartutako taldeei Caja Laboral Baskoniaren partidura gonbidatu gintuzten, eta partidu motz bat jokatzearekin batera, talde bakoitzeko ordezkari batek taulara sarrera bat egiteko aukera zuen. Series Colegiales agurtzeko modu polita izan zen.

**Hasieratik zenuen saskiratze hori egiteko asmoa?**

Bai, taldekideak burua berotzen ibili zirelako [Barre].

**Aipatutako une gozo horiek, baina, erronka handiekin tartekatu dituzu. Aurten ere MUk kategoriari eutsi diezaion egingo duzu lan, eta iaz moduan, badirudi urte gogorra izango dela.**

Bai, sailkapenean atzealdean gaude, eta badakigu kategoria sendoan gaudela, jokalari beteranoz osatutakoa. Gure asmoa, baina, iaz baino larritasun gutxiago izanda kategoriari eustea izango da.

**Horrelako urte gogorretan zailtzen dira jokalariak.**

Gogorra bada ere jokalari nagusien kontra jokatuta ikasten da gehien, askoz ere esperientzia handiagoa duelako.

**Partidu asko galduta, jokalariarendako ez da erraza izango motibatuta ibiltzea.**

Ez da erraza, ez, politagoa delako beste helburu batzuk lortzeko borrokan ibiltzea. Baina, gazte mailako taldearekin jokatzen dudanean errekuperatzen dut motibazio hori.

**Zapatuko partiduaren gainean galdetuz amaitu nahi nuen elkarrizketa...**

Pena da horrela ibili behar izatea, instalazioak ondo ez ditugulako partidua bertan behera utzi behar izatea. Gainera, gure kontrario zuzena den Urdanetari irabazteko aukera handiak genituen, euren hiru jokalari onenak ez zirelako etorri. Noski, jokatzeko geratzen den zatirako kantxan izango dira.

**"Aurten zailagoa izango da Series Colegiales torneoan finaleraino iristea"**

**"Gure asmoa da kategoriari eustea, eta ahal bada, iaz bezain larri ez ibiltzea"**

**"Pena da instalazioak ondo ez ditugulako partidua bertan behera utzi behar izatea"**

**"Denboraldian zehar partidu asko galtzea eta aldi berean motibatuta egotea ez da erraza"**



Iker Barbero, zapatuan, Urdanetaren kontrako partiduaren ostean. JOSETXO ARANTZABAL

KONTUAN HARTZEKO

## Torneoko MVP saria, Arrasatekoarendako

Iker Barbero izendatu zuten Ointxe! taldeak gabonetan antolatutako Euskadiko Kutxa torneoan jokalari onena. Taldeko lanari esker finaleraino sailkatu zen MU, eta noski, horrek Arrasatekoaren alde egin zuen, inor ez dutelako aukeratzen MVP bere taldea berehala kanpoan geratzen bada. Hala ere, taulapean lan ederra eginda datu hauek batu zituen Arrasatekoak: guztira 47 errebote hartu zituen, 96 minutu jokatu zituen eta 67 puntu sartu. Eta, partidu bakoitzeko 4 txapel egin zituen.


Iker Barbero torneoko sari banaketan. OINTXE!



Umea pozik amarekin kontaktuan dagoela. RAHEGO

**KOLABORAZIOA** > GURASOEN MINTEGIA

# Orokortu edo egiazko bihurtu diren ideiak eztabaidatzeko unea

Txarra da haurra beti besoetan ibiltzea? Orokortu den ideia bat da eta adibide hori eztabaidatu dute Arizmendiko gurasoen mintegian

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

Arizmendi ikastolak egin dituen gurasoen mintegien koordinatzailea da Rafel Cristobal pediatra. Mintegi horietan hainbat gai jorratu eta eztabaidatu dituzte, horien artean hauxe: orokortu edo egiazko bihurtu diren ideiak. Bi adibide azaldu gura izan ditu berak: "horiei seme-alabak okertu egin zaizkie" eta "ez hartu haurra besoetan, horretara ohituko da eta gero ez du nahi izango bakarrik ibiltzerik" esaldiak.

**HAURRAREN IZATEKO MODUA**

Rafael Cristobalen iritziz, lehenengo esaldiaren baieztapenaren azpian dagoen ideia da "haurraren izateko modua haurrarekin berarekin jaiotzen dela, ez dela gerora egiten den zerbait. Gurasoek haurrari gustuko ez duten ezaugarri fisiko edo jarreraren bat ikusten dioten momentutik, segituan ekiten diote senideen artean ahaide desatseginen bat bilatzeari edo, baita ere, gurasoengan beraiengan ere atsegingarri ez den ezaugarriren bat bilatzeari. Bestera gertatuko da, hots, gurasoak prest badaude seme-alabarengan jarrita zeuzkaten ametsak eraldatzeko eta berreraikitzeko, orduan haurrarekin batera ikasteko abenturan sartzeko prest egongo dira".

Bigarren esaldiari buruz, Cristobalek dio gaur eguneko ikerketek frogatu eta egiaztatu dituzten ezagupenek diotela, "haurtxoa sortzen dela beste izaki baten bila joateko eta hura besarkatzeko, bere ondoan egoteko gorputz-komunikazioan".

**ERDITZEA** > ZESAREA

## Siniskeriak igo egin du zesarea kopurua Txinan

8ak zorte ona dakar txinatarrendako, eta data hori erabakitzen dute ama askok erditzeko

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

Zesarea kopurua nabarmen igo da Txinan Osasunaren Munduko Erakundeak emandako datuen arabera. Txinan jaiotzen diren umeen %46a, zesarea bidez jaiotzen dela diote OMEk emandako datuek.

**EGUNA AUKERATZEKO**

Zesarea kopuruaren igoeraren arrazoietako bat da amak erabaki egin dezakeela bere seme edo alaba zein egunetan jaioko den.

Horren atzean superstizio edo siniskeria orokor bat dago. Izan ere, 8 zenbakia zorte oneko zenbakia da Txinan eta horregatik, emakume gehienek 8a duen data aukeratzen dute erditzeko: 8a, 18a, 28a ...

Eguna aukeratu ahal izateaz gain, Txinako emakumeek badute beste arrazoi bat ere zesarea bidezko erditzea izateko: mina. Erditze naturalak oso minkorrak diren beldurrez, nahiago dute zesarea bidezkoa izan eta mina sahiestu.

Osasunaren Munduko Erakundeak zabaldutako txostenak Vietnam-en erditzeen %36a zesarea bidez egiten direla, Tailandian %34a eta AEBn, %31. Herrialde horretan baina, askotan medikuak eurak dira emakumeak animatzen dituztenak zesarea bidez umea izaten. Izan ere pleito asko izan dituzte medikuek eta zesareak, ustez, konplikazio gutxiago duenez, nahiago dituzte erditzeak modu horretara egitea.

**AMATASUN BAJA**

Amatasun bajari dagokionez, Txinako emakumeek, esaterako, Europakoek baino baja txikiagoa dute. Funtzionarioak eta atzerriko enpresetan lan egiten duten emakumeek, hala ere, abantaila gehiago dituzte.

AEBn, berriz, umea izan eta astebetera bueltatzen dira lanera ama asko. Estatuen arabera ezberdina da amatasun baja toki baten edo bestean, baina baja txikia da hemengoarekin konparatuz, behintzat.



Zesarea bidezko erditzea. SANTAROSA OLD SKOOL




Homeopatian erabiltzen dituzten sendagai batzuk. DANIEL VIZEU

**OSASUNA** > HOMEOTATIA

## Homeopatiarengana doaz umeak ere

Homeopatian erabiltzen dituzten teknikez hitz egin du Amaia Iriartek GOITBn

**O.E.** > ARRASATE

Amaia Iriarte homeopatak baieztatu du umeak ere joaten direla homeopataren kontsultara. "Betiko medikuntzaren alternatiba moduan hartzen dute askok homeopatia, eta guraso askok euren seme-alabak ekartzen dituzte, beste iritzi bat jasotzeko, askotan", dio. GOITBko *Magazinea* programan egon da Amaia Iriarte homeopata, eta homeopatiaren teknikei buruz hitz egin du: moraterapia, par-biomagtenikoa eta photon-terapia teknikez, hain zuzen ere.

**DENA LOTUTA**

Homeopatiaren oinarrietako bat da sintoma eta gorputz atal guztiak lotuta daudela elkarren artean. Horregatik, galdera asko, harrigarriak batzuk , egiten dituzte homeopatek kontsultako lehen egunean. "Denak du lotura eta gaitzaren jatorria askotan, imajinatu ere ez dugun tokian egon daiteke", dio Amaia Iriarte homeopatak.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



**> RAIMUNDO AMADOR**
Sevillako artistak bere maisutasuna erakutsi zuen Arrasaten **> 30**



**> ESPALOIA**
Blues doinuak Elgetan, Travelling Brothers eta Bill Lyerlyren eskutik **> 31**




**> HUHEZINEMA**
Hirugarren ediziorako lanak aurkezteko epea, martxoaren 12ra arte **> 32**



Neubat taldean ere aritzen den Libe, Juan Odola eta Ioni, Ekonen ahotsak zapatuko kontzertuan. JOSETXO ARANTZABAL



Plateruena aretoan batutako Ekon-zaleek gozatu ederra hartu zuten taldearen agurrarekin. JOS



Juanek ezaguna egin den alkandora erre zuen amaieran. JOS

**MUSIKA** > EKONFEST JAIALDIA

# Gura duzuenera arte, Ekon!

**AGURRA**

Ekon taldeak azken kontzertua eskaini zuen Plateruenean

**NON:** Durangoko Plateruena.
**EGUNA:** Zapatua, urtarrilak 16.
**ZENBAT JENDE:** 700 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Zapi ordu.

**I.B./T.M.** > ARRASATE

Isilean eta inor ohartu gabe edota zaleei onena emanaz esan dezake agur musika talde batek, eta bigarrena aukeratu du Ekonek itzulerako 15 kontzertuko birari, eta bide batez taldearen ibilbideari, amaiera emateko. Zapatuan ikusitakoak ikusita, Durangora joan zirenek ez zuten damurik izango.

**BOST GONBIDATU**

Ekonekoek baina, ez zuten bakarrik egon gura izan eta beste bost talde gonbidatu zituzten jaialdira.

Arrasateko Angerrek hasi zuen jaialdia, eta eskarmentu handiko laukotea direla erakutsi zuten, metal oinarridun post-hardcore doinuekin kanpoan itxaroten zeudenak erakarriz.

Oñatiko Sharon Stonerrekoek hartu zuten erreleboa eta dituzten bi diskoetako kantak tartekatuz, euren maisutasuna erakutsi zuten. *Fer Apoa*-ren Estricalla proiektu berria igo zen agertokira ondoren; eskola zaharreko hardcorea, *frontman* itzelarekin.

Eraso zarauztarren metal doinuek eta entzuleekiko gertutasunak eta Sexty Sexers beratarren hard-rock eta rock-and-roll apologia izerditsuak Ekoni ongietorria emateko motorrak berotu zituzten.

**EKONEKIN, ZORAMENA**

Gauerdia ondo pasata ireki ziren literalki agertokiko kortinak, eta orduan hasi zen Ekonen *show*-a; pantaila erraldoiz eta suz osatutako eszenografia zainduaren barruan, garrantzitsuena: zazpi kide dena emateko gertu.

Ordu eta erdian zehar, taldearen *hit* gehienak entzun ahal izan ziren, besteak beste *Eraiki, Mila koloredun gerra* edo *Gazte gaizto*. Baina bertsiorik ere ez zen falta izan, Faith No More taldearenak, esaterako.

Ekon ezagun egin zuten metal, elektro, trash eta rap doinuek jendea zoramenera eraman zuten eta nostalgiak ere izan zuen bere tokia, Naiara taldeko korista izandakoa kantura gonbidatu zutenean, esaterako.

Juan Odola abeslariak ederki irudikatu zuen kontzertuaren esanahia, ezagun egin duen alkandora sugarduna sutara bota zuenean. Agur isilak ahaztu egiten dira, zapatukoa modukoak berriz, ez.

**KRONIKA** > RAIMUNDO AMADOR ARRASATEN

# Festa Amador eta konpainiarekin



Bi ordutan zehar, bere maisutasuna erakutsi zuen Raimundo Amadorrek Arrasaten. JOSETXO ARANTZABAL

**NON:** Hiru aretoa.
**EGUNA:** Egubakoitza, urtarrilak 15.
**ZENBAT JENDE:** 400 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu.

TXOMIN MADINA > OÑATI

Bluesa. Rocka. Flamenkoa. Rumba. Eta baita pop apur bat ere. Horiek guztiak batu ziren egubakoitzean jendez lepo bete zen Arrasateko Hiru aretoan.

Gaua baina, ez zen oso ondo hasi badirudi-eta gurean ordutegiak orientazio gisa bakarrik erabiltzen ditugula. Hala, 23:00etarako iragarrita zegoen kontzertua ia gauerdian hasi zen, bertaratu zirenen pasientzia agortzen hasita zegoenean. Lehenengo notak entzutean baina, haserreak alde batera geratu eta dantzarako eta dibertimendurako gogoak jabetu ziren aretoaz.

**SEIKOTEA AGERTOKIAN**

Betaurrekoekin, ilea luze eta dagoeneko mende erdia betea duen arren, gaur egungo edozein gazte bezala jantzita agertu zen jendaurrean Raimundo Amador, diskoetan erakusten duen itxura dotoretik aldendu samar. Ahotsa entzutea eta zioena ulertzea zenbait unetan zaila egiten zen arren, gitarrarekin paregabe ibili zen Sevillakoa. Gitarrarekin baino, gitarrekin, behin baino gehiagotan aldatu baitzuen instrumentua.

Amador baina, ez zen bakarrik etorri Arrasatera. Hala, semea lagun izan zuen kaxoian, eta iloba, berriz, bigarren ahotsetan. Alvaro Gandulek teklatuan, Lin Cortesek gitarra eta ahotsetan, eta Anye Baok baterian osatu zuten seikotea; gauak aurrera egin ahala, sekulako batasuna erakutsi zuena.

Fusioa da Raimundo Amadorren musika deskribatzeko askotan erabiltzen den hitza, eta hori argi geratu zen bi ordutan zehar jo zituen ia 20 piezetan. Emanaldia hasi baina, flamenko kutsu nabarmena zuen kantu batekin hasi zuen. Eta orduan bai, estiloen festari hasiera eman zitzaion.

**LEHENGOAK ETA ORAINGOAK**

Abesti arrakastatsuak akaso ezezagunagoak diren beste batzuekin tartekatu zituzten. Ez ziren falta izan adibidez, *Ay que gustito pa mis orejas*, *Candela* edo B.B.Kingekin batera hain ezaguna egin zen *Bolleré*.

Baina bere bakarkako ibilbidean ezagun egindako kantuez gain, 80ko hamarkadan anaia Rafaelekin osatutako Pata Negra taldearen piezak ere jo zituzten, *Lunático*, *Yo me quedo en Sevilla* eta *Camaron,* esaterako. Esan behar da zenbait kantutan Lin Cortes izan zela ahots nagusia eta ederki asko bete zuela lan hori.

Taldeko kideen batasuna aipatu dugu lehen, eta batasunari maisutasuna ere gehitu behar zaio, batez ere Gandul teklatuarena eta Bao bateriarena. Ahozabalik uzteko moduak izan ziren teklatuaren eta Amadorren arteko doinu jokoak, hitzik gabeko elkarrizketa perfektuak. Bateriak berak ere txalo zaparrada itzela eragin zuen bakarkakoan.

Momentu hunkigarriak ere egon ziren, Iman Califato Independiete taldeko Iñaki Egaña baxujolea agertokira igo zenekoa. Duela 30 urte ezagutu zuten elkar Amadorrek eta Egañak, eta bi pieza jo zituzten denek batera: Spencer Davies Group taldearen *Gimme some lovin'* eta Trianaren beste kantu bat.

**IKUSI, ENTZUN... ETA DANTZATU**

Askotan esaten da euskaldunok publiko hotza garela, kosta egiten zaigula artistaren jokoan sartzea Hiru aretoan baina nahi gabe ere musikak gorputza mugitzen, txaloka, abesten jarri zituen ikus-entzuleak.

## IKUS-ENTZULEEN IRITZIA



**Jabier Idigoras**
Oñati

"Soinua hala moduzkoa izan den arren, oso gustura egon naiz kontzertuan. Rythm and bluesa gustatzen zait, eta fusio ederra egin du. Santanaren tankera hartu diot zenbait unetan".



**Kristina Arriaran**
Arrasate

"Ez naiz oso gustura geratu, baina akaso neure errua izan da. Izan ere, ni flamenkoa entzuteko gogoz etorri naiz, ez hainbeste fusio. Dena dena, arrakasta handia izan du, eta giroa ondo egon da".



**Alazne Saiz**
Arrasate

"Raimundo Amador gustuko dut, lehen akaso gehiago entzun arren. Kontzertua bera ondo egon da, musikariak eurak oso ondo ikusi ditut, baina jendeak zarata eta berriketa larregi egin du".



**Alaitz Natxiondo**
Lekeitio

"Raimundo bera zahartuta ikusi dut, baina bestela, oso kontzertu ona iruditu zait; giroa itzela izan da. Nere gusturako, *gitarreo* larregi akaso, txalo eta dantza zaleagoa naiz ni".



**Oihana eta Agurtzane**
Arrasate

"Ederto egon da kontzertua. Abesti ezagunenak bagenekizkien, baina ez genuen zuzenekoa ezagutzen. Kontzertu borobila izan da: musikariak taula gainean eta gu lehen ilaran dena ematen".

NON: Oñatiko kaleetan.
EGUNA: Zapatua, urtarrilak 16.
ZENBAT JENDE: 40 lagun inguru.
IRAUPENA: Egun osoa.



Oñatin bildutako Hamaika Bertute taldeko kideak, tabernaz taberna bertsotan hasi aurretik. JOSETXO ARANTZABAL

**BERTSOLARITZA** > HAMAIKA BERTUTE EGUNA

# Bertsoz bertso, tabernaz taberna

**MIRIAN BITERI** > OÑATI

Oñatiko kaleek eta bereziki, tabernek Euskal Herriko hainbat txokoetatik iritsitako bertsolariak hartu zituzten joan den zapatuan. Hamaika Bertute Eguneko ospakizunaren harira, 40 lagun inguru bildu ziren bertsotan jarduteko eta bide batez, egun paregabea pasatzeko.

Hitzordua 11:00etan zuten eginda, Antixenako parkean. Salda beroa esku artean zutela ezagunak agurtzeko eta lasai hitz egiteko aukera izan zuten orduan. Eguerdi partean, berriz, tabernaz taberna ibili ziren guztiak; konpainia ederrarekin gainera: Alproja antzerki taldearekin.

**TABU TERAPIA**

Iraia eta Asier zarauztarrek *tabuak* gaia landu zuten Oñatin eskainitako antzezlanean. Horretarako, 'tabu terapia' bezala aurkeztu zutena praktikatu zuten bertsolariekin batera. Taberna bakoitzean *sketch* bana egin zuten; guztira, zazpi izan ziren. Horien bidez, askotariko tabuak kanporatzen ikasi zuten gazteek; esaterako, puskerrak lotsa barik bota behar direla jakinarazi zieten.

Alproja taldekoez gain, trikitilari eta pandero-joleak ere Hamaika Bertutekoekin ibili ziren tabernaz taberna. Hala, antzezlanaren *sketch*ak amaitzean, trikitiaren eta panderoaren soinu alaiak hartzen zuten antzezleen lekukoa.

**LARRAIN GAINEN BAZKARIA**

Konturatu barik, bazkaltzeko ordua iritsi zen eta apurka Narria auzorantz abiatu ziren guztiak, Larrain Gain elkartean gertu zuten-eta Iñaki Olaldek egindako bazkari gozoa. Hasteko, patata txorizoarekin eta jarraian, biribilkia saltsan. Postrerako tokia gorde beharra zegoen, ijito-besoa zuten-eta. Bazkaldu ostean, bertsotan jarduteko aukera izan zuten ostera ere.

**LAUGARREN ALDIA**

Oñatikoarekin laugarren aldia da Hamaika Bertute taldeko kideak elkartzen direla. Urtero Hamaika Bertute Eguneko ospatzen dute; aurretik Donostian, Durangon eta Zarautzen egin dute topaketa.

Bertsogintzak elkartu dituen taldea da Hamaika Bertutearena. Bertso saiotan jarduteko gogoz dagoen taldea da. Debagoienari dagokionez, Ainhoa Agirreazaldegi elgetarra, Jokin Labaien arratsatearra eta Egoitz Aizpuru oñatiarra dira talde horretako kide. Hiru horietaz gain, bailarako bertso eskoletako beste hainbat gazte ere izan ziren Oñatiko Hamaika Bertute Egunean.

**MUSIKA** > TRAVELLING BROTHERS ETA BILL LYERLY

# Egubakoitza bluesaren gaua izan zen Espaloian

NON: Elgetako Espaloia antzokian.
EGUNA: Egubakoitza, urtarrilak 15.
ZENBAT JENDE: 100 lagunetik gora.
IRAUPENA: Bi ordu eta erdi.

**M.B.** > ELGETA

Lehenengo Travelling Brothers taldeko musikariak igo ziren Elgetako Espaloia antzokiko agertokira. Leioako boskote elektrikoak oso kontzertu dinamikoa eta erritmikoa eskaini zuen han bildu ziren ehun lagunetik gorakoen aurrean. Ordubete inguru iraun zuen emanaldian bluesa izan zen nagusi, swing ukituekin.

Bizkaitarrek jo zituzten kantu gehienak eurek sortutakoak ziren. Bereziki, Gaztelupeko Hotsak zigiluarekin joan den urtean taldeak argitaratutako *Red, Hot & blue!* izeneko laneko abestiak jo zituzten; baina baita kalean dituen beste bi diskoetako kantuak ere: *A Blues Experience. Live From Kafe Antzokia* eta *From The Road* izenekoak, hain zuzen ere.

**HIRU GITARRA**

Jarraian, Bill Lyerly beteranoaren txanda iritsi zen. Musikan 30 urte luze daraman amerikarrak Gaztelupeko Hotsakekin kaleratutako *Too Hurt To Cry. The Best of Bill's Blues* izenburuko diskoa aurkeztu zuen. Hiru gitarra ezberdin tartekatu zituen egubakoitzean eskainitako emanaldian. Bluesa eta rock-and-roll esparrutik jo zuen. Bill Lyerly estatubatuarrak ordu eta erdi inguru eman zuen agertoki gainean, jendeak bi bider hala eskatuta.

Azkenean, guztiak pozik irten ziren Espaloia antzokitik. Musika zaleak gogotsu joan ziren musikariak entzutera, eta aurreikusi bezala, horiek ez zuten huts egin.



Travellin Brothers boskotearen emanaldia. JOSETXO ARANTZABAL

**ZINEMA** > LEHIAKETA

# Apirilean egingo den Huhezinema jaialdia hasi da lehen urratsak ematen


Iazko Huhezinemaren barruan egindako rallyan parte hartu zutenak. GOIENKARIA

Martxoaren 12an bukatuko da epea Huhezinemaren hirugarren edizioko lanak aurkezteko, eta eman dituzte jakitera lehiaketaren oinarriak

**TXOMIN MADINA** > BERGARA

Apirilaren 27tik 29ra ospatuko da Huhezinema jaialdia, aurten hirugarren edizioa beteko duena, eta dagoeneko hasi da motorrak berotzen.

Eskoriatzako Huhezi fakultateko ikasleak dira irakasleen laguntzarekin jaialdia antolatzeaz arduratzen direnak, eta berrikuntza ugari prestatu dituzte hirugarren edizio honetarako.

**SARIAK**

Berrikuntza nagusienak sarien arloan egin dira. Izan ere, aurten, lehiaketarako aukeratutako hamar lanek 400 euroko saria jasoko dute, eta beste horrenbeste epaimahai ofizialak aukeratuko duen euskarazko film labur onenak. Honetaz gain, fikzio, dokumental eta animaziozko film labur onenei aipamen bereziak egingo dizkiete.

**LEHIAKETAREN OINARRIAK**

Euskal Herrian jaio edo bizi den edozeinek aurkez ditzake lanak lehiaketara. Lanok 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera ekoitzitakoak eta 30 minutu baino motzagoak izan beharko dute, eta animazioa, fikzioa eta dokumentalak onartuko dira.

Lanak bidaltzeko epea martxoaren 12an amaituko da, eta izena emateko, lehenengo *www.huhezinema.com* webgunetik izen emate orria jaitsi eta bete egin behar da. Ondoren posta arruntez edo e-postaz bidali behar da zuzendariaren nortasun txartelaren kopiarekin, filmaren kartelarekin eta bi fotogramarekin batera, hauek JPG formatuan.

Film laburra DVD formatuan bidali beharko da ondorengo helbidera: Huhezinema 2010 Film Laburren Jaialdia, Huhezi - Dorleta auzoa, z/g, 20540 Eskoriatza.

**MUSIKA** > PIANO EMANALDIA

# Klasikoak entzuteko aukera dago etzi, Amaia antzokian

Ordubeteko saioan 62 piano-jole igoko dira agertokira; banaka zein lau eskutara joko dute bailarako hainbat musika eskoletako ikasleek

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Chopin, Schubert, Bach, Meunier, Goedike, Bastien, Wooding edo Mierren piezak entzun ahal izango dituzte etzi, eguaztena, Arrasateko Amaia Antzokira joango direnek. Otsailaren lehen asteburuan Andoaingo jaialdiari begira prestakuntza saioa da Arrasate, Oñati, Eskoriatza eta Bergarako musika eskolako 62 piano-jolek 18:30ean eskainiko dutena. Ordubete inguru iraungo duen emanaldian banaka zein lau eskutara joko dute 10 eta 17 urte bitarteko gazteek.

Hiru urte daramatzate esandako kontzertua egiten. Aurreko edizioetan izandako harrera ona lortzea espero du Arrasate Musikaleko Edorta Aiastuik.


Arrasate Musikaleko piano-joleak, lau eskutara jotzen. ARRASATE MUSIKAL


Lizarralde, Labaien eta Alberdi, iazko irabazleak. GOIENKARIA

**BERTSOLARITZA** > LEHIAKETA

# Jokin Labaien Beterriko Txapelketan ariko da

Bertsolari gazteei plaza berriak eta trebatzeko aukera ematea da helburua

**T.M.** > BERGARA

Bi kanporaketek eta finalak osatuko dute urtarrilaren 29an Asteasun abiatuko den Beterriko Bertsolari Txapelketa. Saioak bertso-afari moduan egiten dira, eta ikusleak eurak dira epaimahaia.

**IAZ TXAPELDUN**

Txapelketaren ezaugarrietako bat da taldeka jokatzen dela, eta aurten Debagoieneko ordezkari bakarra izango dugu, Jokin Labaien, hain zuzen ere. Arrasatearrak gainera, badaki zer den txapelketa irabaztea, iaz Uxue Alberdi eta Ander Lizarralderekin osatu zuen taldea izan zen-eta garaile.

Aurten labezomorren taldean ariko da arrasatearra, Iñigo Eizagirre eta Jokin Urangarekin. Lehenengo kanporaketan hartuko du parte Labaienek.

GURE TALDEAK

## Anger



Argazkian, ezkerretik eskuinera, Ekain, Beñat, Arkaitz eta Iban. ANGER

# "Hitzei garrantzia ematen diegu komunikatzeko tresna direlako"

Anger taldeak 'Sedukzioaz' izeneko bigarren diskoa kaleratu du; dagoeneko salgai dute lana Arrasateko Irati eta Gure Leku tabernatan

Musikherria disko-plataformarekin grabatu dute, eta emaitzarekin gustura daude, bai abestien mailarekin, eta baita CDaren diseinuarekin

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

**Iban, Beñat, Arkaitz eta Ekain dira Anger taldeko kideak. *Sedukzioaz* izeneko bigarren diskoa kaleratu dute, eta hasi dira zuzenekoetan kantu berria jotzen. Eurekin berba egin dugu diskoaren gaineko bitxikeriak ezagutzeko.**

**Gustura geratu zarete diskoarekin?**

Oso gustura geratu gara emaitza osoarekin, bai abestiekin eta baita diskoaren diseinuarekin.

Diskoen grabaketa prozesuak zentzu batean oso gogorrak izaten dira. Baina, bestalde, polita izaten da hilabete askotan lokalean lantzen ditugun kantuak grabatzen joan ahala nola geratzen diren entzutea. Oso pozik gaude prozesu guztiarekin.

**Diskoko hitzek hausnarketa handia dakarte.**

Hitzei garrantzia handia eman diegu. Guretzat musika ondo pasatzeko modu bat izateaz gain, komunikatzeko tresna da. Hitzak ez ditugu apaingarri moduan erabiltzen. Disko honetan, osatzen dugun sedukzioaren gizarteaz mintzo gara; hain zuzen ere, farandula sozial eta kulturalean; botere edo elitearen gurtze itsuan; hedonismoan; eta, kontsumismo ase ezinean oinarritutako bizimodua ditugu hizpide.

**Zuen kantuak gogorrak eta pisutsuak, eta aldi berean oso melodikoak dira. Zelan lortzen da oreka hori?**

Horrela deskribatu daiteke gura musika. Hasieratik hona gure abestien garapenean alde melodikoak lekua irabazi du, baina oinarriak sendoa izaten jarraitzen du, parametro horietan eroso sentitzen gara.

**Metala bai, baina bestelako erritmo eta giroak ere landu dituzue, ezta?**

Diskoa egiterako orduan ez dugu pentsatzen estilo batekoa edo bestekoa izan behar duenik. Egia da hastapenean behar bada metala zela gure abestietan gailentzen zen estiloetako bat, baina gaur egun era askotako doinu edo erritmoak dira gure abestietan entzun daitezkeenak. Ez gara ezertara mugatzen, maila pertsonalean ere, denetariko musika entzuten dugulako.

Inoiz ez gara etiketei begira egon eta ez dugu konplexurik izan gauza berriak frogatzeko.

**Musikherria disko-plataformarekin kaleratu duzue disko hau. Zeuei hobeto dagokizuen aukera da?**

MusikHerria diskoetxearekin atera dugun lehenengo lan luzea da, aurrekoa kaleratzerakoan egitasmoa sortu gabe zegoen-eta. Hasieratik parte hartu dugu diskoetxearen sorreran, eta auto-kudeaketaren bitartez gure lan egiteko moduarekin bat egiten duenez, diskoa MusikHerriarekin kaleratzea naturala izan da guretzat.

**Zeintzuk dira zuen erreferenteak?**

Ez dakit erreferentetzat har daitezkeen, baina entzuten ditugunen artean daude Ruper Ordorika, The Clash, Faith No More, Dut, Pantera, Snapcase, Negu Gorriak, Skid Row, Brutal Melody, The Smiths edota Bad Brains. Gustu aldetik nahiko anitzak garela esango genuke.

**Non eros daiteke diskoa?**

Arrasateko Irati eta Gure Leku tabernatan eros daiteke. Bestalde, datozen egunetan gure webgunean eta MusikHerriaren webgunean doan eskuratuko ahalko duzue.

**Nolakoak zarete zuzenekoetan?**

Kontzertu zuzen eta intentsuak eskaintzen saiatzen gara, inongo muntaia edo ikuskizun gehigarririk gabe. Protagonistak abestiak dira, musika eta hitzak. Dagoeneko hasi gara zuzenekoekin.




### Umiltasunez nabarmentzeko gaitasuna

**Arrasateko taldea metaletik dator, hori ezin da ukatu. Baina, aldi berean, ezin da ukatu hastapenetatik gaur egunera arte izugarrizko bilakaera izan duela.**

Orain dela hainbat urte kaleratutako *Biluztu* lan dotoreak erakutsi zuen arrasatearrek asko jorratutako estiloak lantzen dituzten arren, ezaugarri bereizgarriak dituztela. Eta oraingoan borobildu egin dituzte. Metal oinarria izan arren, post-hardcore ireki eta distiratsuan egiten dute igeri, hitz eta instrumentazio oso zainduekin. Zorionak!

**Iker Barandiaran.**

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Olazti.** Herrigunean dagoen etxea salgai Olatzagutian. 120.000 euro. Deitu 650 53 79 83 telefonora.

**Aretxabaleta.** 100 metro koadroko etxebizitza salgai Markolen. Lau gela, bi komun, sukaldea eta egongela, ganbara, garajea eta bi terraza handi (150 m2). Jantzita utziko genuke. 650 34 89 85

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Arrasaten Jose Luis Iñarra kalean. Lau logela, bi komun, egongela, sukaldea, trastelekua eta garajea. Deitu 630 03 41 65 edo 669 05 80 33 zenbakietara.

**Bergara.** Apartamentua salgai San Antonion. Sukaldea, egongela, logela bat, komuna, balkoia eta trastelekua. 46 metro koadro . Guztiz berritua eta jantzia. 635 70 49 74

**Bergara.** Etxebizitza salgai Bolun. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi komun, trastelekua eta garajea. Aukera ona. 688 67 10 31

**Etxarri Aranatz.** Pisua salgai Etxarri Aranatzen. Hiru argi edo ikuspegirekin. Lehen pisua. Deitu 636 15 85 35 telefonora.

**Oñati.** Bidebarrieta kalean apartamentua salgai. Sukaldea, egongela, komuna eta logela bat. Oso eguzkitsua. Deitu 607 58 00 99 edo 625 70 54 44 telefono zenbakietara.

### 102. EROSI

**Oñati.** Lau logelako etxebizitza erosiko nuke. Deitu 677 42 52 05 zenbakira.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan San Andresen. Hiru logela, sukaldea eta komuna. Jantzita. Prezio onean. 943 76 59 93 edo 665 70 75 80.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Iturriotz kalean. 685 72 78 12

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berogailuarekin. Prezio onean. Deitu 666 40 65 58 edo 690 79 78 00 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukalde-jangela, egongela, komuna eta trastelekua. 2009an berriztatua, prezio onean. Deitu 676 19 91 54 telefonora.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan. Barrenkalen, guztiz berritua, bi logela eta altzariekin. 629 38 29 96.

**Oñati.** Etxea saldu edo errentan ematen da. Hiru logela, komun bat, sukaldea eta egongela. Garajea aukeran. Guztiz berriztatua. Deitu 665 72 87 89 edo 657 72 25 70 telefono zenbakietara.

**Oñati.** Hiru logelako etxebizitza. Bi komun, sukaldea eta egongela. Guztiz jantzita. Deitu 645 71 98 84 zenbakira.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Arrasateko hiru gazte langilek etxebizitza errentan hartuko lukete. Deitu 665 75 40 36 telefonora.

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 4 pertsonarentzat. Deitu 618 14 71 34 telefonora.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 600 25 98 54 edo 687 61 63 00

**Bergara.** Bergarako neska batek etxebizitza hartuko luke errentan, merke. Deitu 649 40 72 49 telefono zenbakira

**Oñati.** Bikote batek etxea hartuko luke erretan Oñati, 3 gela eta igogaluarekin. Deitu 665 75 59 13 telefonora

**Tolosa.** Pisua errentan hartu nahi dugun bikote bat gara. Interesatuek, deitu 630 66 08 82 telefono zenbakira

**Urnieta.** Urnietar bikote gazte bat gara eta pisu bila gabiltza errentan hartzeko. Lehenbailehen joan nahiko genuke bertara bizitzera. 665 71 95 23.

### 105. ETXEAK OSATU

**Donostia.** 25 urteko mutil langilea naiz eta pisu konpartitu bila nabil Donostian edo Lasarten. Ez dut erretzen eta ez daukat maskotarik. Gelarik libre baduzu edo pisua osatzeko norbaiten bila bazabiltza deitu iezadazu lasai. Eskerrik asko! 605 72 28 65.

**Eibar.** Lana dela eta konpartitzeko pisu bila nabil Eibar edo inguruetan. Deitu 652 73 58 09 telefono zenbakira.

**Altsasu.** Pisu konpartitu batean logela eskaintzen da, egongela, sukalde eta komun handiko etxean, Altsasun, herri erdian. Animatu eta deitu 608 57 97 70 telefonora.

**Areatza.** Etxea alokairuan hartu edo eta alkarbanandu gura dot Areatzan. Interesa badaukazu deitu 660 40 84 92 telefonora.

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu alokagai. Deitu 630 71 35 83 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Musakolan. 610 82 02 17.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan ikasle batentzat zein bestela. 620 54 60 59

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 670 59 73 62

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Erdialdean dago eta oso egoera onean. 300 euro, gastu guztiak barne. Otsailetik aurrera. Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara: 606 74 42 37

**Arrasate.** Arrasaten etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 653 71 44 57

**Bergara.** 2 logelako apartamentu berriztuan, logela bat errentan ematen da. 250 euro. Deitu 626 86 67 36 telefonora.

**Bergara.** Logela ematen da errentan. 655 71 41 24

**Iruñea.** Iruñeko Aralar kalean pisua osatzeko langile baten bila gabiltza. 220 euro + gastuak. Telefonoa: 660 97 01 12

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Santakurtz 25-27an. Prezio negoziagarria. 630 46 36 71.

**Aretxabaleta.** Garaje itxia Lezaman (Santakurtz 24). 16.000 euro negoziagarriak. Aukera aparta. 647 08 00 16.

### 202. EROSI

**Bergara.** Garaje itxia erosi nahi dut erdialdean. Deitu 635 20 81 22 telefono zenbakira

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Erdialdean garaje itxia alokagai. Kruz Gallastegi kalean, Arrano azpian. Deitu 607 66 02 44 telefono zenbakira.

**Etxarri Aranatz.** Garajea alokatzen da Etxarri Aranatzen. Erdisotoa eta itxia. Deitu 647 77 68 21 telefono zenbakira.

## 3/ LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Taberna hartuko nuke errentan. 638 10 29 63

**Debagoiena.** Taberna hartuko nuke errentan. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara:677 05 39 06

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 656 77 46 60 .

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
ALDIBATEKO LANA
943-16 20 48
Senpere,7 (zentru komertziala)
BEASAIN
Ikusi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

**Basauri.** Basaurin etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko pertsona euskalduna behar dugu; astelehenetik ostiralerabitartean 4 egunez, eta eguneko ordubetez ariko litzateke, goizeko 07:30ak eta 08:30ak bitartean.Ezinbestekoa euskara menderatzea. Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara: 618 54 87 15 (Asier)

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Alfonbra eta moketak garbitzen ditut, lehorrean, etxez etxe. 659 62 02 49.

**Aretxabaleta.** Emakume arduratsua gertu adinekoak zaindu, etxeko garbitasunlanak egin edo umeak zaintzeko. Esperientzia adinekoekin. Mari. 943 53 33 92

**Aretxabaleta.** Goizetan atari edota etxeak garbituko nituzke, orduka. Deitu 943 79 96 25 edo 647 10 58 72 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Arrasateko neska gazte euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko, etxeak edota atariak garbitzeko prest. Esperientzia handikoa. Deitu 618 41 24 79 telefonora.

**Arrasate.** Emakume serio eta arduratsua gertu orduka garbiketak egiteko edo jatetxeetan plantxan zein sukalde laguntzaile jarduteko. Deitu 647 16 40 49 zenbakira.

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Deitu 636 25 56 68 edo 943 25 02 94 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaintzeko. Urteaskoko esperientzia. Deitu 662 07 31 68 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Emakumea gertu zerbitzari lanetarako. Esperientziaduna. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 679 04 42 68

**Arrasate.** Etxeak garbitu edo umeak zainduko nituzke. Mari. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 649 30 13 60

**Arrasate.** Neska euskalduna eguerdietan zein atariak garbitzeko prest. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 663 04 53 99

**Arrasate.** Umeak zaindu edo garbiketak egingo nituzke. Deitu 649 30 13 60 telefonora.

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 606 42 64 14

**Bergara.** Bergarako emakume arduratsua gertu garbiketa lanak egiteko. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 690 05 79 07

**Bergara.** Esperientziadun emakumea gertu orduka etxeko lanak egiteko. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 622 60 84 68

**Bergara.** Garbiketa eta adinekoen zainketa lanak egiteko gertu nago, 13:00etatik aurrera. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 691 03 25 02

**Bergara.** Garbiketarako, pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko eta tabernari moduan lan egiteko gertu egongo nintzateke. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 637 28 58 52

**Bergara.** Garbiketarako, pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko eta tabernari moduan lan egiteko gertu egongo nintzateke. Deitu 671 71 90 03 telefono zenbakira.

**Bergara.** Neska bergararra gertu etxeak garbitu, nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. Deitu 943 53 29 18 telefono zenbakira.

**Bergara.** Neska euskaldun arduratsua orduka etxeko garbiketak egiteko gertu. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 680 99 68 94

**Bergara.** Tabernan, garbitasun lanak egiten edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 671 71 90 03 .

**Bilbo.** Sukaldaritzako ikaslea, janari manipulatzaile karnetarekin, prest nago sukalde laguntzaile, pintxoak egiteko, zerbitzari edota tabernari lanak egiteko. Asteburuetan libre nago. 625 11 20 71

**Deba.** Emakume euskalduna ospitalean jendea orduka zaintzeko prest. Harremanetan jartzeko deitu 665 74 18 66 telefono zenbakira eta Marianengatik galdetu.

**Debagoiena.** 45 urteko emakume euskalduna gertu nagusi edo umeak zaintzeko, goizez, 13:00ak arte. Autoa daukat. Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. Deitu 943 79 54 21 edo 619 42 75 21 zenbakietara.

**Debagoiena.** Emakumea gertu zerbitzari lanetarako. Garbiketa egiteko ere gertu. Esperientziaduna. 679 04 42 68

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile edo furgoneta gidari lanetarako. Legezko paperak dauzkat. Deitu 628 48 05 41 edo 943 71 21 15 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** 27 urteko mutila gertu arotz edo soldatzaile lanetarako. Baita publizitatea banatzeko ere. Autoa daukat. Deitu 691 79 53 34 telefonora.

**Debagoiena.** Antzeko lanetan esperientzia duen emakumezko batek lan egingo luke helduak zein umeak zaintzen. Ordutegi malgua eta lanerakoprestutasuna. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 669 02 91 30

**Debagoiena.** Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. Garbiketa lanetan egingo nuke lan: elkarteak, tabernak, bulegoak eta abar. Astean zehar zein asteburuetan. Erreferentzia onak. Harremanetan jartzeko deitu telefonoa: 648 19 10 38

**Debagoiena.** Arrasate edo Bergara. Emakumea gertu arratsaldetan edo asteburuetan nagusiak eta umeak zaintzeko. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 697 93 73 32

**Debagoiena.** Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Mutila gertu edozein garbiketa egiteko: atariak, bulegoak... Deitu 650 14 69 10 zenbakira.

**Debagoiena.** Bergara edo Arrasate. Nagusiak zainduko nituzke, egunez. Deitu telefono zenbaki hauetara:943 53 29 18 edo 696 84 19 51

**Debagoiena.** Bergara eta Arrasate. Emakumea garbitasun lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Eguneko edozein ordutan egin dezake lan. 650 62 12 94

**Debagoiena.** Bergara eta Arrasate. Pertsona nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egingo nituzke. Deitu 691 03 25 02 telefonora.

**Debagoiena.** Bergara-Arrasate. Emakumea gertu edozein lan egiteko, 09:00etatik 14:00etara. Pertsona nagusiak gustura zainduko nituzke. 669 98 46 47

**Debagoiena.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu mutil gaztea. Manuel. Harremanetarako: 943 75 22 30 edo 636 17 27 65

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu etxeko lanak egiteko edota pertsona nagusiak zaintzeko. 943 76 44 27

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, egunez zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak dauzkat. Ana. 648 60 27 87

**Debagoiena.** Emakumea edozein lan egiteko prest. Socorro Mora Soria. Deitu 627 14 63 79 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luisa de los Santos. Deitu 671 27 78 36 telefono zenbakira.

---

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU/ALOKATU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
• Matxiategi 82 m$^2$. Eguzkitsua.
• Zubiaurre 230 m$^2$. Berritua.
• Aranerreka 85 m$^2$. Berritua.
• Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
• Alkabieta 88 m$^2$. Eguzkitsua.
• Zubiaurre 67 m$^2$. Berritua. Eguzkitsua.
• Zabalotegi 60m$^2$. Oso ondo
• Barrenkale 82 m$^2$. Berritua.
• San Antonio, 46 m$^2$. Berritua.
• Masterreka. 46 m$^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
• Bidekurutzeta 103 m$^2$. Duplexa. Oso ondo.
• Boni Laskurain 90 m$^2$. Oso ondo.
• Azkarruntz 69 m$^2$. Prezio ona.
• San Pedro 65 m$^2$. Ganbararekin.
• Osintxu 64 m$^2$. Berritua. 114.192 €.
• Aranerreka 80 m$^2$. Terrazarekin.
• Zubiaurre 58 m$^2$. Eguzkitsua.
• Aranerreka 90 m$^2$. Oso ondo.
• Osintxu 62 m$^2$. Prezio ona.
• San Lorentzo 68 m$^2$. Berritua.
• Zubiaurre 52 m$^2$. Berritua.
• **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
• Artekale. Logela bat. Berritua.

**Antzuola:**
• Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
• Errekalde 70 m$^2$. Garajearekin.
• Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
• San Roke 72 m$^2$. Berritua.
• San Roke 80 m$^2$. 80 m$^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
• Salbador 90 m$^2$. Berritua.

**Soraluze:**
• Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
• Arrizuri, 97 m$^2$, garajearekin.
• Aranerreka, 80 m$^2$, oso ondo.
• Matxiategi, 88 m$^2$, eguzkitsua, oso ondo.
• Zabalotegi, 54 m$^2$, eguzkitsua, oso ondo.
• Bolu, 103 m$^2$, oso eguzkitsua.
• Zubieta 65 m$^2$, ondo, hortuarekin.
• Ibargarai, apartamentua, 40 m$^2$, berria, garajea aukeran.
• Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
• Iparragirre, apartamentua, 40 m$^2$, berria, garajea eta trastelekua.
• Martoko, 87 m$^2$, ondo, garajearekin.
• San Pedro, 88 m$^2$, ondo.
• Ibargarai, 80 m$^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
• Koldo Eleizalde, 87 m$^2$ oso ondo.
• Urdangarin pasealekua,132 m$^2$, berritzeko.
• Zabalotegi 80 m$^2$, eguzkitsua, berritua.
• Elorregi 70 m$^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
• Matxiategi, 73 m$^2$, berritzeko.
• Simon Arrieta, 57 m$^2$, terrazarekin.
• Zurradero, 81 m$^2$, oso ondo.
• Zubieta, 125 m$^2$, terraza eta ortuarekin.
• Zabalotegi, 50 m$^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
• Iparragirre, 190 m$^2$.
• San Antonio, 65 m$^2$, eguzkitsua.
• Masterreka, 46 m$^2$, eraikuntza berria.
• **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
• Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.

**SORALUZE**
• Baltegieta, 83 m$^2$, berria.
• Sagarerreka, 58 m$^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
• Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
• San Roke, 75 m$^2$, ia berria.

**DEBA**
• Txalet bateko etxebizitza, hondartzako lehenengo ilaran

**Debagoiena.** Emakumea erreferentzia onekin gertu pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko. Paperak ditut. Lanaldi osoa edo murriztua egingo nuke. 696 19 05 15

**Debagoiena.** Emakumea gertu edozein tokitan lan egiteko, baita baserrikolanak egiteko ere. 639 88 64 13.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, edota garbiketa lanak egiteko, egunez zein etxean bertan bizi izaten. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 619 92 40 86

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, edota garbiketa lanak egiteko. Orduka edo gauez. Deitu 678 23 54 93 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko, orduka edo etxean bertan bizi izateko prest. Paperekin. Deitu 606 64 16 09 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu sukalde laguntzaile edo lisatze lanak egiteko. Hiru urteko esperientzia. Deitu 647 16 40 49 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. Lan egiteko baimena daukat. Deitu 618 98 31 50 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu edo supermerkatuetan lan egiteko gertu. Paperak ditu. Deitu 636 01 91 12 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten zein orduka lan egingo nuke. Legezko paperak ditut. Deitu 663 65 78 43 telefonora.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak edo ume zein nagusiak zainduko nituzke. 637 12 15 18

**Debagoiena.** Garbiketa lanak, sukalde laguntzaile edo etxeko lanak egingo nituzke. Deitu 630 20 12 03 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Garbiketalanak edo nagusiak zaintzeko gertu nago. Eli Cerezo. 630 20 12 03

**Debagoiena.** Gazte arrasatearra edozein lan egiteko prest. Esperientziaduna zerbitzari lanetan eta makina muntaketa lanetan. 605 76 05 59

**Debagoiena.** Gazte arrasatearra muntatzaile edo zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. Deitu 605 76 05 59 telefonora.

**Debagoiena.** Gertu nago pertsona edadetuen zein haurren zainketa lanak egiteko. Garbiketa lanak ere egingo nituzke, egunez zein gauez, eta orduka. Deitu 638 54 75 93 telefonora.

**Debagoiena.** Gizonezkoa lanerako gertu. Deitu 645 72 92 87 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Ile apaintzaile lanetan jardungo nuke. Deitu 639 00 35 57 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Instalazio elektrikorako eta mantenurako lanak egiteko gertu egongo nintzateke. Elektrikaria naiz, teknikari komertziala. Javi. Deitu 669 49 83 24 edo 680 30 30 52 telefono zenbakira.

